

## Larraitz Aragon eta Iñigo Guereta nagusitu dira Ubidestroi Trail mendi lasterketan

Ubidestroi Trail jardunaldiaren bosgarren edizioa be sano arrakastatsua izan da lasterketa bietan. Luzean Larraitz Aragon eta Iñigo Guereta nagusitu dira. Laburrean barriz, Aimar Larrea eta Ane Mendizabal izan dira bizkorrenak. **15. orrialdea**



## Herrietako jaien maratonia hastear



**B**adatoz Igorreko sanantoniaok eta barritasunen artean dagoz bezperako jaitxoa, barriro herri -eta ez gazte- mailakoa izango dan afaria eta Lehendakari Agirren egingo diran jarduerak. Los Zopilotes Txirriaos, Xiberoots, Txapela Brava, Tatta, Sembrando Kaos, Galazota eta Puro Relajo taldeek joko dabe, besteak beste. **7. orrialdea**

## "Segurtasuna eta inmigrazioa lotzean diran momentuan intentzino bategaz egiten da"

**A**rriatiako Sare Antiarrazistak, oin Eskubideak Danontzat Plataforma moduan ezetuko danak, jardunaldiak antolatu ditu hilaren 19 eta 20rako. Horren atxakiagaz, BEGITU kideetako batzukaz batu da euren jarduna eta burruka-ildoak hurretik ezetuteko helburuagaz. **11., 12. eta 13. orrialdeak**



### IGORRE

## Ume baten kontrako eraso salatu da Igorren

Umeentzako zerbitzua eskaintzen dan negozio baten ustez gertatu dan adin txikiko baten kontrako eraso baten barri emon da Ertzaintzan eta salaketea instrukzioan dago. BEGITUk jakin dauanez, eraso sexual moduan egin da salaketea zentroko langile baten kontra eta laster jakingo da epaia. **9. orrialdea**

### ZEANURI

## Obra garrantzitsuak egingo ditue Gorbeia kurutzean

Kurutzeak 125 urte beteten dauzan honetan, kurutzearen oinarria diran zapatak kendu eta oinarri zirkular handi bat ipiniko jakola iragarri dabe Bizkaia eta Arabako diputazioek. Gainera, dokumentauta dagoan zizelautako JEL lelo handiena eta altuena deskubridu da Egiriñan. **5. eta 8. orrialdeak**

### DIMA

## Diskoa grabetako dirua batzean dabil Suger



Dimako taldeak merchandisinga eta esperientzia bereziak ipini ditu salgai *itsulapikoa*. eus webgunean, Anots diskoa grabau ahal izateko. Gitxienez, 2.500 euro lortu gura dabez diru-bilketa kanpaineagaz. **16. orrialdea**

**30** EGOITZA  
EGUNEKO ZENTROA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

ARRATIAKO EGOITZA

ARRATIAKO EGOTZA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO HERRI ERAKUNDE AUTONOMOA

Gizarte- eta osasun-arreta jarraltua eta pertsonalizatua

IBARRA AUZOAN, 17 DIMA

94 631 57 76

# Literatura txokoa

## MUNDU GUZTIAK

2025eko Ignacio Aldecoa Beka jaso ostean argitaratutako lana dogu *Mundu guztiak*.

Ipuin bildumea da. Ikutu futuris-teagaz jantzitakoak, eta fikzinozko uri baten kokatuta dagozan heinean, fikzinozko ipuinak dira; baina gaur egungo errealidadeagaz bat egiten dabenak. Fikzinozko Green uriko Saint Mary Streeteko 7. atariko bizilagunen bizimoduak kontetan deuskuz: kontrolerako sistema integratua daroan preso ohia; drogen ondorioz arazo psikologikoak daukazan eta amaren zaintzearen ardura daukan neskearen gorabeherak; ezkontzearen monotoniaz aspertuta dagoan eta amorante gazteak eragiten deusn grinagaz berbiztuta dagoan andrea; androide bategaz

bizimodua partekatuten dauan gizona; buruan mikrotxip bana txertatuta dabezan lagunak, alkarreriz guztiz konektuta biziteko, eta alkarren gogoan denpora guztian zer dagoan jakiteko, aurrez aurreko komunikazioa galdu badabe; edo zortzi urte eukazala aita galdu eban gizonetako, eta aita besarkatutea lortu dauana, *avatar* moduko fikzinozko uri baten. Hori dana uriaren gainetik, zelatari, hegan dabilzan dronen begipean.

Greenen badaukie hizkuntzea ba, Oxe hizkuntzea, eta espresino batzuk hizkuntza horretan agertuten dira, eta Oxedun eta erdaldunen arteko bereizketak be susmatuten da liburuan. Esan lei etorkizuneko Euskal Herriaren metafora bat dala.

Baina modernidadea modernidade eta teknologia teknologia, gaur egungo arazoak etorkizuneko mundu horretan be. Bakardadea zama handiagaz susmatuten da narrazio guztietan; depresioa eta suizidioa beste batzutan, eta desbarditasun soziala be bai; ze aberatsek ikusmen laguntzaile adimentsua ordaindu leikie, baina txiroek ezin pagau, eta ikusmen txarragaz bizi behar. Eta galdera nagusi bat: "Eguneroko bizitzak ikatza moduko labezomorro bilakatu eban lanean eta uritar betebeharrak alferrikakotan. Hori al zan bizitza? Holan pasau behar ahal dogu mundutik?". Kafkak azaldu euskun duda berbera etorkizunetan be.

Rafa Ugalde



Ruben Sánchez Bakaikoa

*Mundu guztiak*

Txalaparta argitaletxea, 2026

176 orrialde

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

#### Bagilaren 1etik 7ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga (30-5). Amorebieta-Etxano.

#### Bagilaren 8tik 11ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez (6-12). Amorebieta-Etxano.

#### Bagilaren 12tik 18ra

Traver Ibañez. Bedia. J.A. Agirerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50 eta 646 830 571

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano (13-19). Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Tel.: 94 449 05 87

### Medikuak

Arantzazu, Artea, Areatza, Dima,

Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63

Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85

Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95

### Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

### Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17

mankomunitatea@arratia.eus

### Gorbeialde Landa

#### Garapenerako Elkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51

kulturetxea@igorre.net

Lemoako Kotxepin Kultur Etxea

kotxepin@lemoa.eus

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa 688 854 543

info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eus

### Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-

Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik

22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik

21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara

orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era

orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro.

Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-

Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-

Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera:

06:45etik 20:45era bi ordukin behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik

20:45era bi ordukin behin. Jaiegunetan: 08:45etik

20:45era bi ordukin behin.

\*08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran

zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta

08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan

ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00; 11:45\*, 14:10, 15:00,

16:10, 18:30\*, 20:20.

\*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20.

\*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan:

07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30,

16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan:

07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

A3712 linea. Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik.

Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta

jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.

A3712 linea. Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik.

Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta

jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.

Eskualdeko garraioa. Erreserbak

945 18 20 60

6A linea. Otxandio-Legutio

Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean,

09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean

eta 20:25ean. Astegoen eta jaiegunetan:

08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

6A linea. Legutio-Otxandio

Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean,

14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta

21:15ean. Astegoen eta jaiegunetan: 10:35ean,

13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.

Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. Helbidea: Herriko Plaza 24, Artea.

Tel.: 94 673 90 13. E-posta: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus). Webgunea: [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus).

Zuzendaria eta kudeatzailea: Iñigo Iruarizaga. Tel.: 649 979 115. E-posta:

[inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus). Erredakzino burua: Asier Abrisketa. Tel.: 626 647 923.

E-posta: [asierabrisketa@begitu.eus](mailto:asierabrisketa@begitu.eus). Erredakzinoa: Asier Abrisketa eta Ager

Barragan. Webgunearen arduraduna: Ager Barragan. Tel.: 649 979 112.

E-posta: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus). Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga. Banaketea:

Araitx Zapiko (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Xabier Gorostiaga (Arantzazu, Areatza

eta Artea), Aimar Arandia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz

(Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). Tiradea: 7.300 ale. Inprimategia: Bidasoa

inprimatzeko zentroa. Facebook: [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/BegituAldizkaria), Instagram: [@BegituAldizkaria](https://www.instagram.com/BegituAldizkaria), Mastodon: [@BegituEus](https://mstdn.social/@BegituEus), YouTube: [@BegituAldizkaria](https://www.youtube.com/BegituAldizkaria)

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-

eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu

daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatutako lizentziaren*

*bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean

komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatz eta egiletza

aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



### Babesleak:



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrirorezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hau xe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

### BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## ALKARREGAZ



### Zertu Kultur Elkartea

Irabazi asmorik bako kultur alkartea da, Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea, bizkaiera eta tokiko kulturea sustatzea helburu daukana. Komunikazioaren, kulturearen eta komunitatearen garapenaren bitartez, herritarren parte-hartzea bultzatzen dau eta lurraldearen nortasuna indartzen laguntzen dau. Alkarteak BEGITU hamabostekaria kudeatzen dau, baita [begitu.eus](http://begitu.eus) webgunea eta sare sozialetako kanalak be, tokiko informazio independentea, profesionala eta kalidadezkoa eskainiz. Bere jardunaren bidez euskerearen erabilera sustatu, tokiko kultureari ikusgarritasuna emon eta komunitatearen kohesinoa indartzen laguntzen dau. Bere jarduna bardintasunean, aniztasunean, kazetaritza etikoan eta herriaren zerbitzurako konpromisoan oinarritzen da. Horrezaz gainera, Arratia, Ubide eta Zeberioko eragile, alkatere eta erakundeak hartu-emon estua dauka, eskualdearen garapen sozial eta kulturala bultzatzen laguntzeko.

## ERETXIA

### Planifikazioa eta erreserba

**G**aztetan, bidaia asko egin nebazan, batez be European zehar. Ko-txean kanpin-denda hartu eta Frantzia, Portugal, Ingalaterra, Herbehereak, Danimarka, Alemania, Italia eta Kroaziatik ibiltzen ginan laneko oporretan, hilebete oso baten, askatasun osoz ezer planifikatu barik.

Oin jubilauta, ez dirudi plan txarra bidaiak egitea. Oindino gehiago, hori espero dala esango neuke. "Astia daukazu eta erantzukizunik ez, mundua ikusteaz gainera sozializetako aukera bat da, zahartze aktiboa" esaten deuskue eta zaharron etenbako turismoa bidaia merkeakaz bultzatzen da. Merke baina asko, turismo industriak diru iturri ikaragarria topau dau osasun oneko jubilaudu barriongan eta.

Baina turistifikazioaren gizar-tean ezer gitxi inprobisau daiteke; mundu guztia dabil hara eta hona eta leku guztiak dagoz aspalditik beteta. Eta erreserba barik ezin da inora sartu. Sare sozialek asko bultzatu dabe eredu honetako turismoa eta internet ezinbesteko erreminta bihurtu da bidaia egiterakoan.

Atzen 15 urteotan, asko aldatu da bidaiak egiteko modua. Gero eta ezinbestekoagoa dirudi alde aurretik dana planifiketea. Planifikazio beharra apurka-apurka joan da zabal-tzen. Hasikeran, ostatua baino ez zan segurtatu beharrekoa; gauero non lo egin ziurtatu behar zan batez be leku turistikoetan, ze gertatu ahal zan dana beteta egotea. Holan da, bai, betearazoten dan profezia baten modura, mundu guztiak alde aurretik erreserbetan dauanez, beti egoten da dana beteta. Erreserbau behar da eta gero eta alde aurretiago gainera.

Egun guztietarako ostatua hartzeak, biajea guztiz baldin-



### BEA AZPIRI

Kazetaria

tzatzen dau. Egun bakoitzean non egongo garan finkatzen dau. Eta jakinda non egongo zaran, eta akaso, honengaitik edo haregaitik jatetxe guztiak beteta egongo dirala kontuan hartuta, ba gero eta arruntagoa da, biajea egun guztietako bazkaria behintzat, alde aurretik internetez erreserbeteta. Holan, ez bakarrik lekua, -non egongo zaran ezarri dau ostatuak- ia konturatu barik, ordu-tegi bat be sartzean da bidaiaren jatetxeak hartzean. Eta leku emblematikotarako edo kultura ekintzetako be hartu behar izaten dira sarrerak alde aurretik internetez. Hau dana eginda, lan sasoko baino agenda beteagoagaz abiatzen gara denpora "libreaz" gozatzeraz.

Agenda horreek ikusteak dana bertan behera ixteko gogoia emoten dau. baina erreserba horreek guztiak emon eben lan handia, barriro

errepetidu beharko litzateke. Plana betetea, internetez dana baliobakotzea baino errazagoa da, eta gauza asko ordainduta egoten dira gainera. Aspaldi ez dala, zerbitzuak, normala dan moduan, zerbitzua jaso ostean pagau behar baziran be; interneteri eta dana erreserbau beharri esker, oin alde aurretik pagau behar izaten dira gehienak. Hau da, ordaindu behar da, ez jaso dozunean zerbitzu bat, jasoteko asmoa daukazu-nean baino.

Holan, bertan behera itxitako erreserbek diru iturri barri bat sortu deusie turisismoari (prezioen igoera eta turisismoaren masifikazioa nahikoa ez balira legez). Izan be, zozengaitik ezin badozu biaje hori egin -hezur bat apurtu jatzulako edo atxilotuta zagozalako, esate baterako- gestino pilo baten ostean, diru zati bat errekerpau ahal izango dozu; baina inoz ez diru guztia. Gurako neuke jakin urtean zenbat daneko estimazoren bat.

Beraz, holan behintzat, bidaiatzeko gogoia kendu jata. Ez dot konsumismo eta kapitalismo neoliberalak zaharro eskaintzen deuskun bizimodu hau eginaz, sistema elikatu gura. Egingo dodaz biajeak, bai, jakina, neuri be gustetan jata-ta, leku barriak ezetutea. Baina beste modu baten izango da: niretzat esanguratsua diran biajeak, luzeagoak eta askoz gitxiago kopuru aldetik, urtean bat edo beste, biajeak askatasun itxurea euki dagian, eta ez betebehaz edo lan itxurea.

P.D.: Esango deustazue "joder, Bea! Zergaitik egiten deuskuzu berba pribilejiaduen deserosotasun txiki baten gainean daukagun egoera geopolitikoagaz, (mundua erruleta errusiarrera jokatzen gerra nuklearragaz; eskoi muturra zabaltzen eta indarra hartzean mundu osoan eta gurean be ate joka...)?". Ba horregaitik, horretaz berbarik ez egiteko. Ondo bizi kolapsora arte!



## LUMATUTEN



RAFA UGALDE

Euskerearen  
ajeak I

**1**997an argitaratu eban Ibon Sarasolak *Euskara batuaren ajeak* liburua. Nik, baina, ez neukez mugatuko 'aje' horreek euskera batura; euskerara baino, inguruan daukagun euskerara.

Oin dala hile batzuk ipuinen tailerra antolatu genduan Dimako eskolako umeakaz, eta eskolara joateko eskatu eustien, umeei tailerraren nondik norakoak azalduko. Gustura joan nintzan, eta umeek hainbat itaun egin eustiezan, dan-danak be molde beretik ateratakoak; hona moldeak:

"Ahal dogu egin...?", "Ahal da egin...?", "Ahal dogu...?", "Ahal da...?"...

Eta nik erantzun: "Bai, hori egin zeinkie"; edo "Bai, hori egin lei(teke)".

Guzti-guztiak bardin, gaztelaniaren kalko hutsak: ¿Podemos hacer...?, ¿Se puede...?

Bestela esanda, euskañol garbi-garbia.

Irakasleei esan neutsien arazoa dagoala. Euskeraz ez da bardin-ta "Egin ahal dogu" edo "Egin geinke"; ezta "Egin ahal da" edo "Egin lei(teke)". Umeen eta ikasleen eredu linguistikoa gurasoak eta irakasleak dira, baina ume guztiek molde berbera erabili eben, batek be ez eban erabili ahalera formarik. Zergaitik? Arazoa harago dagoalako, euskerea ikaragarri pobretuta daukagulako, eta irakaskuntzan be zalantzan ipinten dot hizkuntzearen kalidadeari ardurarik emoten ete jakon. Ez dakit irakaskuntzearen arloko profesionalak jaubetuten ete diran be arazo horregaz, edo eurak daukien euskera maila hobetzeagaz; ez dot holako ahaleginik ikusten-ta.

Baina arazoa hezkuntzatik harago be badago, euskaltegietan be sano gitxi dira (egongo ahal da banakaren bat!) "Ahal dogu" eta "Geinke" desbardinak dirala azaltzen daben irakasleak. Edo subjuntiboa eta nominalizazioa (-Tzea/-Tzeko) be ez dirala beti bardin, eta batzutan subjuntiboa erabili behar dala nahitaez.

Holakoak hainbat ekarri neikez hona, hemen azaldu dodana adibide bat baino ez da, horregaitik artikuluari EUSKERAREN AJEAK I ipini deusat izenburu, atea zabalik ixteko gerora etorri leitekezan ildo bereko beste batzuei.

## ZERTZEAN



IGOR ESTANKONA

**N**i nago Esloveniaren alde  
ni nago Herbehereen alde  
ni nago Japoniaren alde  
ni nago Georgiaren alde  
—egon izan naiz

Estatu Burujabeen Erkidegoaren alde ere—  
ni nago Uruguaireren alde  
ni nago Aljeriaren alde  
ni nago Ekuatore-Ginearen alde  
ni nago Kamerunen alde  
segun eta nork jokutzen duen Espainiaren aurka.

## Gunak (Euskal Herria)

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**M**usikea eta garagardaoa, garagardaoa eta musikea. Ze-lango bikotea. Urtean behin egiten da Areatza Musik & Beer, musikea eta garagardaoa astegoiaren askotan bazean badoguz be. Jaialdiaren ajea pasauta, Lian Monserrate kale artisteak betirako eta egunero ikusteko moduko murala itxi dau uribilduan. Kaina baten murgilduta dagoan gitarrista erraldoia irudikatu dau Monserratek, garagardaoa eta musikea, jaialdia eta herria, lotzean dauzan kolore biziko kordakaz. Herriarentzako oparia itxi dau, baina berarentzako be izan da oparia, Europa osoan zehar 700 horma inguru koloreztatu dauz baina inoz be ez, zuzeneko musikeak lagunduta. Areatzan, Lemoan eta Zeanurin aurretik be egondakoa da Monserrate eta harritura agertu da Arratiagaz, "ze polita dan!". Segidu ba, Lian, Arratiara etorri eta gure pareta grisak koloreztatuten!



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)


**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24  
Arkaitz 677 46 40 91  
Golder 666 58 20 06  
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beeredariak@gmail.com](mailto:beeredariak@gmail.com)

**agoa**  
hagin klinikak  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologoa  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Ikalegata Zerbitzuak 900  
R.P.S. 21/06

ZEANURI

## Zapatak kendu eta hormigoizko oinarri zirkularra ipiniko jako Gorbeiaiko kurutzeari

Lanak urrietan hastea espero da eta Arabako zein Bizkaiko diputazinoek ordainduko dabez erdibana 160.000 eurotik gorako lanak.



kurutze osoa inguratuko dauan hormigoizko oinarri zirkular bat eregita.

Lanak 167.742,78 euroko kostua izango dabe eta aldundi biek, erdibana ordainduko dabe. Aurreikusita dagoenez, lanak urrietan hasiko dira eta hiru hile eta erdi irautea espero da. Airez zein lurrez eroango dira materialak eta obrak iraun bitartean, langileentzako komun kimikoa eta itsas kontainer bat egongo dira tontorrean.

### Kurutzearen itxura barria

Egingo diran lanakaz, kurutzearen lau hankak oinarri bardin eta handiago bat alkarbanatuko dabe, egitureari egonkortasun handiagoa emonaz. Baina estetikeak be izango dau garrantzia. Hormigoizko oinarria altzairu baltzezko uztai batez inguratuko da, kurutzearen kolore bardinagaz. Uztai honen inguruan, harrizko geruza bat be ipiniko da.

### Asier Abrisketa

1.482 metrotara dagozan haitze zein euriteek eta bertatik urtero pasetan diran milaka mendizale eta abere buruek asko higatuten dabe Gorbeiaiko

tontorreko lurra. Holan, 1907an ipini zan kurutzearen oinarria diran zapatak, lurraren higadurearen ondorioz, agerian geratu dira. Beraz, Araba eta Bizkaiko foru aldundiek oinarria guztiz barriztutea ebatzi dabe,

UBIDE

## Inaugurazino arrakastatsua egin zan Ubideko Herriko Tabernan

Maiatzaren 23an egindako jaitxoaren ostean, zabalik dago barrero Ubideko plazako taberna.

### Asier Abrisketa

Ubideko Udalak zezeilean atera eban lizitazinora Herriko Tabernearen errentamentua eta prozesua amaituta, taberneak ateak zabaldu barri dauz Andoni Rubinaren eskutik. Rubina Zigoitiarra da jaiotzez baina 22 urte daroaz Ubiden eta BEGITUN kontau dauanez, arrakastatsua izan zan inaugurazino jai: "Oso ondo joan zan eta taberna bete-bete egin zan".

Rubinak kontau dauanez, urtean zehar astelehen, bariku, zapatu eta domeketan zabalduko dau eta uda sasoiaren, eguenetan be. Pintxoak, errazinoak, plater

konbinuak, hanburgesak eta bokadilloak jateko aukerea eguneroko izango dau eta horrezaz gainera, astegoienetan menua

be egongo da bazkalorduan. Beste alde batetik, noizean behin kontzertuak egiteko asmoa be badaukie.



DIMA

## Josu Gorospe alkatetza berreskuratuten saiatuko da 2027an

Dimako EAJk barrero aukeratu dau Gorospe datozen Udal Hauteskundeetan alkategai izateko.



### Asier Abrisketa

EAJ-PNVko Josu Gorospe Lapatzan 2019an aukeratu eban dimoztarrek alkate izateko; 2023ko Udal Hauteskundeetan EH Bilduko Jose Mari Atutxa nagusitu bazan be, 2027ko hauteskundeetarako jeltzideek barrero egin dabe Gorosperen aldeko apustua. EAJk zabalduzako ohararen adierazoten danez, Gorospek "ilusinoz, indarrez eta Dimagazko konpromiso osoz" egingo deutso aurre hautagintzeari.

Azpimarratuten dauanez,

auzo guztiak kontuan hartzea eta gardentasuna izango dira helburu nagusietakoak, eta etapa barri baten buru izateko asmoa ageri dau: "Dimak gehiago merezidu dau: norabide barri bat, kudeaketa arin bat eta herritarren benetako beharrak lehen lerroan ipiniko dauan udal gobernu bat".

Josu Gorospe lemoaztarra da baina 45 urtegeaz, bizi erdia baino gehiago egin dau Dimako urigunean familiagaz. Ingeniari teknikoa eta irakaslea da oin dala 19 urtetik Zulaibarren.

IGORRE

## Arratiko Zekorrak presidentearen lantokia miatu dau Ertzaintzak

### Asier Abrisketa

Maiatzaren 28an, 20:00ak aldera, Ertzaintza Arratiko Zekorrak errugbi taldearen presidentea dan Unai Zuluagak lan egiten dauan autoeskolara sartu zan, ordaindu bako Gabonetako Loteriaren kasua dala-ta. Presidentea bera eta epailea be egon ziran bertan, hainbat orduz miaketak iraun bitartean. Zuluaga maiatzaren 15ean atxilotu eban eta hurrengo egunean geratu zan aske, behin-behinean eta fidantza barik, baina behar dan guztietan epaitegian aurkeztuteko baldintzeagaz.

Kaltetutakoen kalkuluen

arabera, 286 dira ordaindu ez diran loteriako partizipazinoak eta 2,8 milioikoa da errugbi klubaren zorra. Kaltetuek maiatzaren 26an egin eban bigarren batzar bat, abogadu eta prokuradoreagaz. Bilboko abogadu bufete batek ordezkatu dau kaltetu gehienak prozesu judizialean zehar.



ZEANURI

## Zortzigarrenez egingo da Aire Zabaleko Margolan Lehiaketea

Bagilaren 7an, goiz osoan zehar egongo dira margolariak Zeanuriko txoko desbardinak margoztuten.

### Asier Abrisketa

Oingo hilaren 7an, domekea, egingo da Zeanuriko Aire Zabaleko VIII. Margolan Lehiaketea. Zeanuriko pintura taldeak antolatuta eta Udalak lagunduta dago lehiaketea. Margolanen gaia, urtero lez, Zeanuri eta bere inguruak dira: auzoak, baserriak, basoak, errekea... Margolari bakotzak txoko bat aukeratu eta hau margoztuko dau euskarri lauan eta teknika librean, gehienez be 100x100 zentimetrokoa.

Artistak goizean hurbilduko dira Zeanurira, 09:00etatik 09:30era izango dabe euskarri zuria zigilatzeak aukerea. Gero bakotzak bere txokoa hartuko



dau eta goiz osoa izango dabe margozteko. Lanak 14:00etatik 14:30era batuko ditue epaileek Kultur Etxean.

Epaimahaiak hiru irabazle aukeratuko ditu. Lehenengoak

800 euro jasoko ditu, bigarrenak 500 eta hirugarrenak 300. Beste irabazle bat be egongo da, publikoak aukeratutakoa eta honek, 300 euroko saria izango dau.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Martxan dago Berriro, bezeroek tokiko komertzioetan dirua eta puntuak pilatuteko sistema

Bizkaidendak-ek ipini dau martxan erosleak merkataritza txikira fidelizau eta aurreztuteko plataformea.

### Asier Abrisketa

Maiatzaren 20tik dago zerbitzua martxan eta funtzionamentua sano erraza da. Lehenengo eta behin, erosleek *berriro.eus*-en sartu eta "Eroslea naiz" botoian klikatuta izena emon behar dabe. Gero, Arratia-Nerbioi zein Durangaldeko dendetan -webgunean agertuten dira atxikitutako dendak- erostean NAN zenbakia baino ez da emon behar. Behar izan ezker, webgunea mobikorrean instalau daiteke. Gero, erosketa bakotzagaz, dirua zein puntuak be pilatuten joango da erabiltzailea.

Erabiltzaile bakotzak hiru zorro izango ditu: ordainduteko diruaren parte bat denda horretako hurrengo erosketetan gastetako, beste parte txikiago bat Berriroren parte dan edozein dendatan gastetako eta atzenik, denda bakotzak erabagiten dauan opariak jasoteko puntuak pilatuteko zorroa. Holan, hurren-

go erosketan bezeroak ebatzi ahal dau zorroko dirua erabiltea edo pilatuten jarraitutea. Gainera, lehenengo erosketarako bost euroko oparia emoten da izena emoteagaz batera.

### Tokiko merkataritza eta konsumoa

Berriro plataformea, Bizkaidendak-ek sortuta dago eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bultzada estrategikoa dauka. Proiektu pilotua Arratia-Nerbioi eta Durangaldean ipini da mar-


txan helburu bikotzagaz, erosleak tokiko komertzioetan konsumiduten laguntzea eta denda horreen lehiakortasuna bultzatutea. Webgunearen diseinuan Igorreko Arratek-ekoek hartu dabe parte eta platafomeagaz sano pozik agertu dira, dendarientzako be oso baliagarria dalako, fidelizazioaz gainera, denda bakotzak euren behar eta baliabideen arabera ebazten dabelako erosleek gordetan daben diruaren ehunekoa, erosketa minimoa eta puntuakaz lortzean diran opariak.



LEMOA

## Hasi dira Lemoako eskolako patioa barriztuteko lanak

Esku-hartzea hainbat fasetan egingo da, 1,1 milioi euroko inbersinoagaz.



### Asier Abrisketa

Lemoako Udalak hasi dauz J.B. Eguzkitza Meabe ikastetxe eskolako patioari eta kiroldegiko sarrereari itxura barria emon- teko lanak. 930.835,54 euroko (+ %21 BEZ) aurrekontuagaz eroango da aurrera eskolako ikasleakaz eta espazioaren erabiltzaileakaz egindako prozesu parte-hartzailearen emaitzea dan proiektua. Lehenengo fasean, jantokiko eta kiroldegi sarrerean egingo da esku-hartzea; zoladurea barriztu, irisgarritasuna eta ur-hustuketea hobetu

eta berdeguneak egokituaz.

Patioaren berrantolaketeagaz, eremu anitzagoa eta orekatuagoa lortu gura dala adierazo dabe Udaletik, "espazio atsegina goa eta funtzionalagoa eskaintzeko". Holan, jolas aktiboa bultzatu baina eremu lasaiak eta berdeguneak be egin gura dira, gerizpe guneak handitu eta patioko dinamiketarik kanpo inor ez geratuteko. Horrezaz gainera, ikastetxe espazioen eta kiroldegiaren arteko loturak hobetu gura dira, ikasleen eta udal-instalazioetako erabiltzaileen ibilbideak erraztuteko.

ARRATIA

## Arratia eta inguru etako jaietatik bueltetako autobus zerbitzua izango dabe gazteek gauez

### Asier Abrisketa

Arratiako Udalen Mankomunitateak udako jaietarako autobus zerbitzua antolatu dau aurten be, Arratiako gazteei zuzenduta. Arratiako herrietako zein Zornotza, Galdakao eta Usansoloko jaietatik gauez modu seguruan bueltetako zerbitzua da hau. Goizaldeko 02:30ean eta 05:00etan urtengo dira autobusak jaiak ospatuten dabezan herrietako autobus geralekue- tatik, gero Arratiako herrietan geldialdiak egiteko.

Hurrengo hurrengo, egun honeetan egongo dira autobusak: bagilak 6 eta 13 Igorretik, bagilak 20 Bediatik, bagilak

26 Arantzazutik, bagilak 27 Dimatik, garagarrikak 18 eta 25 Zornotzatik, abuztuak 1 Lemoatik, abuztuak 15 Zeanuritik, abuztuak 28 Areatatik, urri lehenengoak 11 Arteatik, urri lehenengoaren 12 eta 19an Galdakaoetik eta zemendiaren 28an Usansolotik.



IGORRE

# Hamar eguneko sanantonioetan murgilduko dira igorreztarrak

Barritasunen artean dagoz bezperako jaitxoa, barriro herri -eta ez gazte-mailakoa izango dan afaria eta Lehendakari Agirren egingo diran jarduerak.



## Asier Abrisketa

Ate-joka dabiz bailarako herrietako jaiak eta lehenengoak izango dira Igorreko sanantonioak, bagilaren 5etik 14ra. Barritasun moduan, aurten txupinazo aurreko egunean, hilak 4, bezperako jaitxoa egingo da, Eingoko musikariak eguerdiz zein arrastiz ibiliko dira-ta herri-tik. Jaietako egunean, aurten hilak 11, egiten dan afaria barriz, atzen urteetan gazteentzako izan dana, herri afaria izango da barriro eta "Joko Olinpikoak" da Jai Batzordeak aukeratutako gaia. Gune barri bat be egongo da Lehendakari Agirren, lehenengo zapatu arrastian jarduerak egingo diran eszenatokia: ume eta helduentzako "salseo show"-ak eta Txapela Bravaren kontzertua.

Txosnaguneko kontzertuak izaten dira jaietako ekitaldi nagusietakoak, eta inguruko herrietatik jente gehien ekarten dabenak. Lehenengo egunean Iruñeako talde bi egongo dira oholtzan, Burutik pop-rock taldea eta Maruxak, musika elektronikoa lantzean daben trabestiak; DJ Gose ta Suegaz. Bigarren egunean barriz, zapatua, punk-rock doinuak

nagusituko dira Sembrando Kaos, Galazota eta Bulkadagaz, Altxaporruren erromeriagaz amaituta.

Bigarren astegoienean barriz, rapa eta elektronikoa buztartuten dauzan Lekeitioko 48280 taldea, Xiberoots reggae taldea eta urteroko Zirkinik Bez taldearen erromeria egongo dira barikuan. Zapatuan barriz, rantxera doinuak nagusituko dira Puro Relajo eta Los Zopilotes Txirriaosen musikeagaz; eta gero kutsu modernoagokoak Tatta eta MJ Pastixxotegaz.

### Bagilak 4, eguna

Jaien bezperea.

12:00etan, kalejirea Eingoren eskutik. Gau Loratik hasita.

18:15ean, kalejirea Eingoren eskutik.

19:00etan, erromeria parte-hartzailea Eingoren eskutik. Bidebarrin.

### Bagilak 5, barikua

17:00etatik 20:00etara, Saharaiak Arratian alkarteak egingo jakien dastaketea. Goiko plazan.

17:15etik 18:30era, Areatzako erraldoiak, txotxongiloak, buruhandiak eta Usgaldu taldeko gaiteroak kalejiran. Kultur Etxe-

tik hasita.

18:30ean, ume eta helduentzako euskal jantzak Arantzarteren eskutik. Goiko plazan.

18:55ean, argazki herrikoia.

19:00etan, txupizakoa Kiñu Gaztetxearen eskutik.

Bitartean, jubiladuen alkarteak egindako meriendea.

19:05ean, Larrain jantzea Arantzartegaz.

19:25ean, kuadrillen argazkia. Goiko frontoian.

19:30ean, kuadrillen arteko Olinpiadak: herri kirolak.

20:30ean, OstiKda! elektrotxarangea.

23:30etik aurrera, kontzertuak: Burutik, Maruxak eta DJ Gose ta Sue.

### Bagilak 6, zapatua

08:30ean, kantu-birea ermitetatik jubiladuen alkarteagaz. Jubiladuen tabernatik hasita.

11:00etan, umeentzako tailerak eta zirku tailerra. Kultur Etxeko parkean (eguraldi txarraz eskoletako aterpean).

12:00etatik 14:30era, Paella eta Gaztetxer Lehaketak. Olabarriko landan.

15:30ean, umeen erreka jatsierrea. Egurrezko zubian.

16:00etatik 19:00etara, Ardoa Barrura fanfarrea.

17:00etan, umeen salseo showa. Lehendakari Agirren.

20:00etan, Txapela Brava taldearen kontzertua. Lehendakari Agirren.

20:00etan, Gotx elektrotxarangea. Olabarriko landatik hasita.

22:30ean, helduentzako salseo showa. Lehendakari Agirren.

22:30etik aurrera, kontzertuak: Sembrando Kaos, Galazota, Bulkada eta Altxaporrerromeria.

### Bagilak 7, domekea

11:00etan, 6-12 urtekoentzako Multikirol Txapelketea, Motor Txiki Txapelketea, jolasak eta mokautxoa. Eskoletan.

13:00etan, kalejirea Areatzako Bandeagaz. Olabarritik hasita.

17:00etan, Xake Txapelketea. Kultur Etxean.

### Bagilak 8, astelehena

Umeen eta soinu bako eguna barraketan.

16:00etatik 19:15era, antzerki-gintzea. Kultur Etxean.

18:00etan, Jaietako Frontenis Txapelketako finalaurrekoak eta finalak. Goiko frontoian (eguraldi txarraz Kiroldegian).

### Bagilak 9, martitzena

Baserritarrez jantzeko eguna.

18:30ean, Arantzarteren jantzialdia. Goiko plazan (eguraldi txarraz txosnagunean).

### Bagilak 10, eguaztena

Umeen eta soinu bako eguna barraketan.

16:00etatik 17:00etara, Loraldia antzezlan. Lasarte Aretoan.

18:30ean, umeen karaokea. Txosnagunean.

19:00etatik 21:00etara, zumba.

### Bagilak 11, eguna

Mozorro eguna. Gaia: Joko Olinpikoak.

16:00etan, Mus Txapelketea. Bidebarrin.

17:00etan, andrazkoen pala partiduak eta gizonezkoen esku-pelota partiduak.

18:30ean, Izarren Hautsa zirku taldearen ikuskizuna. Kultur Etxean.

19:00etan, karropoteoa.

21:30ean, herri afaria. Txos-

nagunean.

Gero, MJ Izarren Ahuntza.

### Bagilak 12, barikua

10:00etan, ume eta gazteen-tzako puzgarri eta jolasak.

12:00etan, bits festa. Lasarte parkean.

17:00etatik aurrera, Patata-tortilla Txapelketea. Olabarriko landan.

20:00etan, Sakatu elektrotxarangea.

22:00etan, suzko zezena. Kultur Etxeko parkean.

22:30etik aurrera, kontzertuak: 48280, Xiberoots eta Zirkinik Bez erromeria.

### Bagilak 13, zapatua

San Antonio eguna.

09:00etatik 14:00etara, neska Alebinen Futbol Txapelketea. Urbietan.

11:00etan, Atletismo Txapelketea. Orobiko parkean.

12:30ean, mezea. San Antonio ermitan. Gero, kopaua eta herriko trikitaliak.

14:00etan, umeen bazkaria. Bidebarrin.

17:00etan, umeentzako Yogurinha Borovaren Amona molona ikuskizuna. Bidebarrin.

17:00etan, Mus, Tute eta Briska Txapelketen finalak eta Igel Txapelketea. Jubiladuen tabernan.

17:30ean, Rally Umoristikoa.

19:30ean, Luis Iruarrizaga Abesbatza (Igorre), Agrupacion Coral Olague (Sondika) eta Mendi Ona Abesbatza (Sodupe). Lasarte Aretoan.

21:30etik aurrera, kontzertuak: Puro Relajo, Los Zopilotes Txirriaos, Tatta eta MJ Pastixxote.

21:30etik aurrera, kontzertuak: Puro Relajo, Los Zopilotes Txirriaos, Tatta eta MJ Pastixxote.

### Bagilak 14, domekea

10:00etatik 14:00etara, puzgarriak eta jolasak. Bidebarrin.

12:00etan, 8 urtetik gorakoentzako parkour tailerra. Eskoletan.

14:30ean, jubiladuen bazkaria. Eskoletako aterpean.

18:30ean, Gauargi erromeria. Txosnagunean.

19:00etan, Jubiladuen Txapelketako sari banaketea (Kuadrillen arteko Olinpiadana online).

19:30ean, txokolata.

BEDIA

## Ekoizle eta artisau azoka eguna

### Asier Abrisketa

Bagilaren 14an egingo da Bedia Udalak antolatutako Artisautza eta Nekazaritza-Elikadurako Azokea herriko plazan. Artisau eta ekoizleen postuak 11:00etan zabalduko dira eta 14:30era arte egingo dira zabalik, "sormenez, tradizioz eta saborez betetako" merkadu eguna

eginda. Besteak beste, ogia, ezta, txarrikiak, kontserbak, barazkiak, ogi eta pastelak eta bestelakoak salduko dabezan ekoizleen hamasei postu egongo dira eta bestetik, zeramikea, bitxiak, ehungintzea eta egurra lantzean dabezan zortzi postu egongo dira azokan. Gainera, azoka eguna girotuteko musikea be egongo da plazan.

ZEANURI

## Harrian zizelautako JEL handiena eta altuena aurkitu dabe Gorbeian

Iñaki Garcia ikertzaileak deskubridu dau “Jaungoikoa eta Lege-zaharra”-ren akronimoa, ustez 1937ko gudariak egindakoa.

### Asier Abrisketa

Iñaki Garcia Uribe, Gorbeia zein mendizaletasunaren ikerlaria eta Aranzadiko etnografia saileko kidea, Gorbeian egoan dozena bat personagaz ikerketa-lan bat egiten. Kurutzetik Egiriñaora bajatukeran, bera eta lagun bat aurreratuta joiazan eta Edurre-tako Ama ermitearen -Bizkaiko txiki eta altuena- parean itxaroteari ebatzi eben, motxilak lurrean itxita. Garcia, ikerlari moduan, beti dabil berak dinoan moduan “ikusteko begiakaz begiratuten” eta zizelautako harri bat igarri eban lurrean. Kasualidadez, motxilea ixtera joian harriaren egoan, lehenengo J bat, gero E... “Hau ez da L bat izango ezta?”, galdetu eutsan lagunari.


JEL akronimoa da, Sabino Aranak eratu eta EAJ-PNVk oindino be erabilten dauan lemea; “Jaungoikoa eta Lege-zaharra”, fede kristaua eta antxinako foruak aldarrikatuten dauzan leloa hain zuzen be. Garcia aurkikuntzeagaz

ilusino handiagaz agertu da BEGITUN: “200.000 aldiz pasau naz hortik... Momentu oso potentea izan zan, opari bat da, Gorbeiak nire bizitzeari egindako oparia!”. Hau, dokumentautu dagoan JEL handiena eta altuena da, 1.119 metro tara.

### 1937ko gudariak egindakoa

Garciak BEGITUN azaldu dauanez, badagoz harrian zizelautako JEL batzuk, baina oso gitxi, eta deskubridu barri dan honen garrantzia

aldarrikatuten dau. Izan be, bere ustetan, 1937an Gorbeia jagoten eben gudariak, noizean behin igoten ziran batailoietako indenteek edo gudariak hornituten igoten ziranek egin eben inskripzio “profesioanala”. Izan be, “ez da ondo eginda dagoala bakarrik, guztiz perfektua da, hiru letrek daukie lau zentimetro zehatzeko lodierera”, kontau dau Garciak: “Persona normal batek ez dauka horretarako gaitasunik”.



## Miru zuriak eta beste hegaztiak makroproiektuak ezabatuten dituez

### Makatzak

Arabako paraje ugarian miru zuriaren hegaldiak balaztea ipinten deutso errotak ipinteari. Oingoz lau makroproiektutik bat ezabatu da Araban, asko oindino ez dira ebatzi, galzorian dagozan hegaztiak babesteko asmoz.

Atzen bost urteotan ehundaka megaproiektu proposatu dira Araban. Herritarren protestak eta horreen kontrako alegazioek, green energia sare orokorrera jalgiteko baimenik ezak eta batez be, hegazti eta fauna babestu beharrak hainbat parke fotovoltaiko eta megraproiektu eoliko deuseztatu ditu.

Agerikoa da erroten palak egiten daben kaltea hegaztiengan, batez be sai zuria eta sai arreari adibidez. 2025ean, erroten palek gitxienez 36 hegazti eta saguzahar hil ebezan. Beste hainbatek habitata aldatu dabe, adibidez arrano baltzak Tetxako arroilan (Koartango parajea) habia egiteari itxi deutso. Hegazti harrapakariak babesteko, aldundiak eskatutako babes neurriak ez dira nahikoak, Koartangoko bailaran hegaztien kumeak here-nera gitxitu dira, Badaiaiko makroproiektua dago bertan, Ekologistak Martxan taldeak egindako ikerketak ageri dauanez.

Starkraft, Capital Energi, Iberdrola... enpresak radarrak, soinu emisoreak, droneak eta abar asmatzen dabiz, harrapakariak eta beste hegaztiak errotetatik uxatzeko.

### Kenia naturara itzuliko da

Goseak hilik, anemiagaz, hotzakilik eta ubeldu itzelakaz aurkitu eben sai zuri gaztea basozainek. Martiodako Faunaren Suspertegian zazpi hilebetez jagon eta osatu ostean prest dago naturara bueltetako. Kenia izena ipini deutsee eta GPSa katigatu lepoan. Afrikatik bere kideak noz helduko zain dagoz, askatasunera bueltetako.

Gurean be badaukaguz miru zuriak, Aramotzen urtero habian arrautzak errun eta txittoa hazten dabe. Ia oindino epaitegietan dagoan autopista elektrikoaren kasua deuseztatzeko balio dauan.

Jose Manuel Navarro eta Ania Ibañez

EL CORREO (Araba), 2026-05-04

Makatzak ekologista taldeak euskeratu eta moldatua



## Artea eta Zeberioako 1. zikloko ikasleek 2026ko Bizkaiko Eskola Txikien Topaketan parte hartu dogu



### Artea eta Zeberioako eskolak

Joan dan maiatzaren 29an, Bizkaiko Eskola Txikien Sareak 450 ume inguru bildu zituan Turtziozen, egun osoko jaiaz eta alkarbizitza egitarau oparo batez gozatzeko. Euskal abereen azokea, jolas desbardinak, herri-bazkaria eta eguna biribilduteko amaierako ikuskizuna egon ziran programautu Enkarterrietako herri politean.

Bizkaiko Eskola Txikien Sarea, landa-eremuko hezkuntza publikoa eta hurrekoa sustatzeaz arduratzen da. Aurten Turtziozko eskoleak eta bertako Guraso Elkarteak hartu dabe eguna antolatzeko ardurea, bertako Udalaren eta Euskal Abereen Elkartearen babesagaz.

Goizean goizetik, eskola desbardinatoko ikasleek euren arteko harremanak estutzeko aukera izan eben, antolatuta egon ziran hamaika ekintzak atxakia hartuta. Eskola Txikien Topaketa honek, landa-eremuko ikastetxeen arteko hartu-emonak sendotzea dau helburu, eta honegaz batera, landa-eremuko eskolak bizirik gagozala eta Hezkuntzearen parte garrantzitsua garala be aldarrikatu genduan. Egun biribila igaro genduan Arteako eta Zeberioako ikasle eta irakasleok eta datorren urteko topaketen esperoan geratzen gara, irrikitan.

Gora herri eta eskola txikiak!

ARTEA

## Herriko Bentak kontzesinoaren luzapena adostu dau Udalagaz

Taberna eta jatetxea urri lehenengoaren 20ra arte egongo dira zabalik.



tazinetik atera ditu eta Udalak hartuko dau honeen kudeaketea, EAJtik azaldu dabenez "gazteei eta emantzipazioari lotutako etxebizitza publiko" moduan erabilteko.

Artea Sareak, gaur egun, etorkinak hartzean dauz bertan eta harrera etxearen proiektuagaz "bai ala bai" aurrera egin gura dabe. Etxe hori gehiago erabili ezingo dabenez, alboko eraikina erosi dau Artea Sareak eta migraduen trantsizino normal eta duin bat egin ahal izateko, gaurko logelen erabilpena zemendira arte luzatuteko ebatzia hartu da Udalagaz batera.

Gorka Beitia alkateak BEGITUN azaldu dauanez, egunotan jakingo da lizitazinora aurkeztu diranen artean nork irabazi dauan lehiaketa publikoa. Izan be, gaurko kudeatzaileez gainera beste proiektu batzuk be aurkeztu dira.

### Asier Abrisketa

Arteako Udalarena dan Artea Herriko Bentaren lizitazinorako lehiaketa publikoa dala-ta, udan tabernea eta jatetxea zarratuta egon behar baziran be, Udalak eta Artea

Sareak kontzesinoa luzatutea adostu dabe. Holan, atzenean urri lehenengoaren 20ra arte egongo dira zabalik. Halanda be, oingoan Udalak ez dau lizitazinora eraikin osoa atera. Gaur egun etorkinak hartzean dauzan goiko etxebizitzak lizi-

ZEBERIO

## Ermitabarri be sanantonioetan, hilaren 12tik 14ra

San Antonio eguna bera, zapatua, izango da egun nagusia, eguerditik gaua ondo sartuta arte egongo da-ta giroa auzoan.

### Asier Abrisketa

Igorren bakarrik ez, Zeberio Ermitabarri auzoko jaiak be ospatuten dira San Antonio egunaren, hilak 13, bueltan. Jaiak aurreko egunean, barikua, hasiko dira txupinazoagaz 17:30ean eta domeka iluntzean Mus Txapelketea amaitu artean auzotarrek ez dabe deskantsurako denporarik izango. Hamaika dira antolatutako jarduerak: pelota partiduak, sardina-jana, kaleko musika ekitaldiak, puzgarriak, mezea, bazkaria, txapel, igel, bola zein pato txapelketak, herri kirolak, euskal jantzak...



### Bagilak 12, barikua

17:30ean, txupinazoa.  
Jarraian, pelota partiduak.  
21:00etan, sardina-jana.  
21:30ean, Perejilek folklore taldea.

### Bagilak 13, zapatua

12:00etan, puzgarriak eta umeentzako tailerrak.  
13:00etan, mezea ermitan.  
13:30ean, barauskarria eta Auspokaleko trikitaliak.  
15:00etan, auzo bazkaria.  
18:00etan, txapel jaurtiketea eta Igel Txapelketea.

18:30ean, bola-jokoa.  
19:30ean, meriendea.  
20:30ean, DJ Alex eta animazioa Lainegaz.  
22:30ean, Kaiña-Bi Trikirarra.  
01:00etan, txokolatea.

### Bagilak 14, domeka

12:00etan, helduen pato lasterketea.  
12:15ean, umeen pato lasterketea.  
13:00etan, Harriti giza proba taldearen erakustaldia eta desafioa.  
13:30ean, Gazte Barri eta Gangoiri taldeen jantzaldia.  
17:30ean, Mus Txapelketea.

IGORRE

## Adin txikiko baten kontrako eraso salatu da

### Asier Abrisketa

BEGITUK lehen eskutik jakin dauanez, Igorren umeentzako zerbitzua eskaintzen dauan lokal bateko profesional bat

epaitua izaten dabil, ustez adin txikiko bateri egindako eraso sexual bat dala-ta. Familiak salaketea aurkeztu eban Ertzaintzan eta momentu honetan, epailearen esku dago ebatzi

judiziala eta ebazpena laster heltzea espero da. Aldizkari honek jakin izan dau, salaketea eraso sexual moduan sartu dala langilearen kontra, eta ez negoziaren kontra.

**ZERTARAKO BALIO DUTE LOREEK?**  
(POLITAK IZATEAZ ETA ONGI USAINTEAZ GAIN)  
JATEN DITUGUN FRUTA ETA BARAZKI ASKOTAN BILAKATZEN DIRA LOREAK.  
BAINA, HORRETARAKO, POLINIZATUAK IZAN BEHAR DIRA.

**POLINIZAZIOAN, LANDAREAREN ZATI ARREKO POLENA...**  
...LANDARE BERRAREN EDO BESTE LANDARE BATEN ZATI EMERA ALEGATZEN DA.  
HAZIDUN LANDAREEN UGALKETARAKO EZINBESTEKOAK DIRA POLEN-ALEAK.  
ORDAINETAN, LANDAREAK NEKTAR EDALONTZI GOZO-GOZO BATERA GONBITZEN NAU.  
ANIMALIA POLINIZATZAILEEK, HILA NOLA INTSEKTUEK, HEGAZTEK ALA SAGUZARREK... EDO AIREAK EDO TA URRAK GARRIATU DEZAKETE POLENA.

**HILABETE BATZUK BERANDUAGO...**  
LORE POLINIZATUAK TOMATETXO BILAKATU DIRAI.  
IKASI GEHIAGO POLINIZAZIOAZ ZIENTZIA KAIERA BLOGEAN.



**IGORREKO JAIEK**  
Bagilaren 5etik 14-ra

**GORA EUSKARA**

Aupa Euskera!  
Gora Igorre!  
Igorreko jaietan be Euskaraz!

**EUSKARA ERABERITZE AURREA JAIAK!**

Kontzertuak  
Herri bazkariak  
Rally-Umoristikoa  
Karaokoa  
Tortila eta paella txapelketak  
Euskal dantzak

Familiarekin  
Lagunekin  
Aitarekin  
Amarekin

gozatu, euskeraz  
Igorreko jaietaz

**IGORRE**

# Igorreko Udalak jai zoriontsuak opa deutsuez!!

# BEGITU

# BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

## 2026AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2026an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  40€  60€  80€

## ESKUBIDEAK DANONTZAT PLATAFORMEA

# “Segurtasuna eta inmigrazioa lotzean diran momentuan intentzino bategaz egiten da”

Bagilaren 19 eta 20an errazakeriaren gaineko berbaldi ziklo bat antolatu dala-ta, Eskubideak Danontzat Plataformako kideakaz batu da BEGITU.

### Asier Abrisketa

Lehen Arratiako Sare Antiarrazista zana, Eskubideak Danontzat Plataforma bilakatu da. Atzenaldian, batez be Lemoako Agarre auzoko gatazka eta tensino momentuen bueltan, pil-pilean egon da taldearen jarduna eta euretzaz zein euren burruka-ildoetaz gehiago jakiteko, Urko Iurrebaso, Laura Ruiz eta Ihintza Angoitiagaz batu da BEGITU.

Azaldu dabenez, etorkin errazializatek harrera duinago bat izan dagien akonpainamentua egin, eta inmigrazioa eta segurtasun faltea lotzean dituan diskursoari aurre egitea dira euren helburu nagusiak.

Hain zuzen be, diskurso horri aurre egiteko antolatu dabe berbaldi zikloa hilaren 19 eta 20rako. Barikuan gaira alde teoriko batetik hurbilduteko berbaldia egingo da eta zapatuan, kolektibo zein persona errazializate esperientziak entzuteko aukerea egongo da.

#### Bagilak 19, barikua

18:00etan, *Arrazakeria eta pribilegio zuria*: Isabel Hernando (Mujeres Tejiendo Red), Txefi Roco (LAB) eta Marie Lucia Monshenake (FAMEK).

#### Bagilak 20, zapatua

11:00etan, *Elkarbizitza gatazka eta gorroto diskurtsoen aurkako erantzun kolektiboak*: Gasteiz Anitza eta Eskubideak Danontzat Plataforma.  
12:00etan, *Lemoako auzotarren esperientzia eta bizi-penak*: Agarreko auzotarrak eta Eskubideak Danontzat Plataforma.

#### Ze gertaerek eragin eben sa- rea egituratuteko beharra? Zer lortu gura zan?

Garai horretan hainbat eraso errazista emon ziran, bai Lemoan bai Igorren. Herritar talde bat hasi zan antolatuten Lemoan, margoketak agertu ziran, persona migrauek bizi ziran

espazio batenganako eraso bat Igorreko gazte batzuen partez... Mezu batzuk zabaldu ziran, mezu ideologikoki oso eskoi muturrekoak eta xenofoboak. Horren aurrean, herri mobimentua Lemoara deitua izan zan, pentsetan gendualako herri mobimentuak horri erantzun behar eutsala, Arratian eskoieko oldarraldi bateri aurre egiteko.

**Igorreko eta Lemoako udalak be seinalau zenduezan euren jarrereagaitik, gertaeren aurrean ze erantzun desbardin emon gura zenduen manifestazinoagaz?**

Guk salatuten genduan jarrera hori, Arratian ez zala onargarria. Eskoieko diskursoari aurre egin gura geuntsan baina era berean, instituzinoei posizionetako eskatuten geuntseen. Gertakari horren aurrean instituzinoek hartutako posizinoak, gure ustez, izan zan gauzak gertatutea inolako erantzun barik. Beste batetik, segurtasunaren inguruko diskursoaren gorakadea emon zan. Lemoan adibidez leku oso konkretuetan kamarak ipini ziran, garai haretan poliziaren presentzia itzela izan zan eta kontrol errazistak egiten ebezan. Estazinora joaten ziran eta persona errazializate guztiak paretan ebezan, identifiketako eta... Hori izan zan instituzinoen erantzuna eta fokua segurtasunean ipinita, indartu egin eben eskoien idea hori: kanpotik datozen personak ostuten datozela eta gure herriak seguruak ez dirala. Egin behar zana kontrakoa zan, alkarbizitzearen aldeko lana.

**Martxoko manifestazinoagaz lortu zan fokua hortik ateratea? Ze idea indartu gura zan?**

Ba segurtasunaren mezu horrek ostenduten dauala pobreen kontrako burruka baten sartuta dagozala instituzinoak eta alderdi politiko konkretu batzuk. Ez da hainbeste segurtasun faltea, segurtasun arazoak beti egon dira. Guk ez dinogu ez dagoala arazorik, lapurretarik... Bai badagoz. Baina ezin da fokua



“**Harrera duina egon dan herrietan ez da tensionamenturik emon, zergaitik Lemoan bai? Ez da kasualidadea**”

ipini kanpotik datozenek lapurtuten dabenarengan, segurtasuna eta inmigrazioa lotzean diran momentuan intentzino bategaz egiten da. Intentzino hori da pobreen kontrako jarrera bat eta jarrera errazistak sustatutea, hain zuzen be, eskoiek segurtasun faltea errazializate egiten dau. Guretzako ezin da fokua hor ipini; fokua beste leku batzutan dago. Zergaitik pobrezien gorakada hau? Zergaitik dauka pobrezia migratu eta andra arpegia? Zergaitik ukatuten dira behin eta barriz persona guztiok daukaguzan eskubideak?

Adibidez, errolda eskubidea, etxebizitza eta baliabide minimoetarako eskubidea... Horreek urratu eta urratu egiten dira eta Lemoako Udala, ziur gagoz errolda eskubidea ukatuten ibili dala. Hor ipini behar da fokua. Horreek dira eskubideak eta horreek bermatuta egon behar dira: persona guztientzako bizitza balditza duinak. Segurtasun arazoak dagozala? Ba bai... baina ezin dira idea biak lotu; hori eskoien estrategia bat da eta herritarrengan barnertuten ebilela konturatu ginan,

horregaitik urten ginan kalera Igorren.

Erantzuna egon zan. Modu batera edo bestera aldatu zan fokua ze lortu zan mobilizazio jentetsua egitea. Gure helburua beste diskurso batzuk be kalean egotea zan, ze ukiten genduan sentsazinoak zan diskurso bakarra hori zala -segurtasuna migrazioagaz lotu eta idea errazistak indartzea- eta jentek ez eukala beste heldulekurik. Eta uste dogu helburu txiki hori lortu zala.

**Errolda eskubideagaitik asko burrukatu da, zergaitik da hain garrantzitsua?**

Errolda barik ez daukazu ezer, errolda barik ez zara. Ez zagoz sistemaren barruan eta sistema barruan ez egotea da ez eukitea oinarritzko bizi baldintzetarako material minimoetarako inongo laguntzarik. Ezin dozuz hartu Caritas edo Gurutze Gorriaren laguntzak, ez daukazu Osakidetzan paziente izateko eskubiderik, hezkuntzarako eskubiderik... Oinarritzko beharrianak ezin dozuz asetu errol-darik ez badaukazu. Sistematik kanpo geratuten zara, horrek suposatuten dauan guztiagaz.

Gainera, erroldak bermatuten dau hiru urtean erroldatuta egon ezker, egoerea erregulazitea erraztutea.

### Hasikerako manifestazio horren ostean, ze lan-dinamika hartu zeduen sare modura?

Herri eragileen sare bat zan. Orduan, manifestaziorako indarrak batu ziran baina gero, herri eragile bakotxa bere lanetara bueltau zan. Gatz egin jakun definitutea zelan jarraituko eban lan horrek, horregaitik sortu zan talde motore bat. Hor parte hartzean genduan personok segidu genduan pentsetan zeintzuk izango ziran hurrengo pausuak. Adibidez, ba Lemoako Udala errolda ukatuten ibili zanez, erroldak eskuratuteko prozesu baten sartu ginan. Agarren bizi ziran hainbatek ez eukien erroldarik eta ibili ginan Uda-

lagaz negozieta eta eskaerak sartzean, errolda horreek bermatuteko. Bai eta eskubide hori bermatuten ez zala salatuten. Holan jarraitu genduan, apur bat apalago, Agarreko dana pasau zanera arte. Hau abenduan izan zan, argia ebagi zan hotz handia egiten eban egunetan eta bertoko jentek laguntzea eskatu euskun.

### Atzenean Agarre hutsitu zan, baina batzuk geratu ziran. Zelan dago egoerea gaur egun?

Ba batetik dagoz handik urten ziran personak eta bestetik Agarren dagozanak. Agarren jentek biziten segiduten dau, ez bakarrik handik mobidu ez ziranak. Auzoa hutsitu zanean, etxebizitzak argi barik eta batzuk ur barik, ez ziran hutsik gelditu eta akabo. Jentea heltzean segidu zan. Zergaitik? Ba

jentek non bizi behar daualako, kale egoerea da. Lehen Agarre prekarioa bazan -okupazioa, etxe zaharrak...- oin prekarioagoa da. Argi barik, ur barik eta etxe batzuk guztiz errementaut dagoz.

Halanda be, jentea hara doa bizitera, ez daukielako nora joan. Orduan, prekarioagoa zan egoerea Udalak gehiago prekarizau dauala baloretan dogu guk. Hori da gaurko Agarreko egoerea, gero-ta latzagoa eta bazterrekoagoa. Ez dogu inolako esku-hartzerik ikusten, esku-hartze egokirik ez gitxienez. Udaletik badagoz mobimentuak etxeak hutsitu aldera, baina ez euren biziteza hobetze aldera. Eta ez daukie hori hutsituteko eskumenik, ez daukie etxeak hutsituteko epai judizialik.

### Eta joan ziranak?



Urten ziran familia eta persona batzuk hasi dira euren bizitzak egiten pisuetan, aterpeetatik urten dira batez be gazteak. Beste batzuri lau hileko eperako emon jakien etxebiziteza, baina epe hori amaitzeaz dago. Batzuri eskaini jakiez gauza batzuk baina besteei ondino ezer be ez. Ez dakigu zer gertatuko dan. Ez dinogu Lemoako Udalak baliabideak ipiniko ez dauzanik, ez dakigulako. Gu saiatu gara Udalagaz egoerearen jakitun egoten eta prozesuan akonpainamentua egiten. Baina ez daukagu informaziorik. Badakiguna da persona horreek oso urduri dagozala, ez dakie euren bizitzeagaz zer pasauko dan eta hori oso gogorra da.

Saiatu dira behin eta barriz alkilerrean etxebizitzak topetan, lau hile honeetan egon dira eten barik topetan eta ez dabe aurkituten. Alde batetik, oso gatxa da edozeinentzako etxebiziteza topetea; eta persona errazializaua bazara... ba gehiago. Hori errealidade bat da. Oso egoera zaurgarrian dagoz nahiz eta oin etxebizitza baten egon, bihar ez dakielako eurekaz zer pasauko dan. Barriro dinogu, ez dakigu urtenbiderik topauko deutesienik, baina eurak be ez dakie. Holantxik ezin lei bizi, ezin da bizi proiekturik eregi.

Egoera oso latzak dira eta gu sare bat gara, ez daukagu etxebizitarik ez baliabiderik, guk akonpainamentuan lagundu ahal doguz eta euren egoerearen barri emoten. Baina ezin dogu arazo hau soluzionau. Arazo hau sistemikoa da, hau da, ez da persona horreana, sistemearena da. Honeek ezetuten doguz eta badakigu zelan dagozan, baina zenbat persona bizi dira kalean edo egoera antzekoetan? Ba pilo bat Euskal Herrian! Eta horrerik, sistemeak emon behar deutso erantzuna. Orduan guk salatuko doguz egoerea, lagunduko doguz personak, Udalera joango gara

eurentzako urtenbideak eskatuta baina egia da, gu be oso mugatuta gagozala egin ahal dogun horretan.

Akonpainamentua egitea modu indibidualean, edo kasuan kasuko, oso gatxa da. Ez dago erroldarik eta administrazioan dagozan babes neurri guztiak ukatu egiten jakiez. Babes neurri horreek barik ez daukazu alokatuteko aukerarik ez, ez bakarrik errazializaua egoteak dakarrenagaitik... Ez daukazu aukerarik eta okupetera durrigortuta zagoz. Gero hori kriminalizetan da eta tensionamentu egoera larriak ekarten dauz; gorroto diskursoak eta abar. Gure asmoa da, ahal dala diskurso politiko bat eregitea eta ahal dala, erakunde publikoek euren betebeharrak beteten ez badauz salatutea eta ahal dan neurrian betearazotea. **Orduan, zirkulu horretatik urtetako harrera duin baten aldeko apustua egiten dozue. Zelan egin ahal da harrera duinago bat?**

Arratian badagoz harrera duinaren inguruko hamaika esperientzia. Arteako Herriko Bentak hamar urte bete barri daukaz eta hainbat harrera sare dagoz, bai Zeanurin, Diman, Lemoan... Baina egia da hau beti datorrela herri mobimentuetatik. Baina arazo estrukturala da eta erantzunkizuna instituzinoena da. Hor be bai ipini gura dogu fokua, harrerea duina eta estrukturala izan behar da.

Harrera duina da adibidez errolda eskubidea bermatzea. Etxebizitza arazo larri bat dago eta erantzun instituzional bat emon behar jako, baina baita pobrezia be. Hori euren ardurera da eta herri mobimentutik jarraituko dogu daukaguzan esperientziakaz harrerea egiten, baina kakoa gure ustez hor dago. Udalek erabili beharko ebezan daukaguzan esperientziak: esperientzietatik ikasi eta bizikidetzera sustatzeko tresna

# 2026KO JAIETAKO AUTOBUSA

Zerbitzu hau ARRATIAko udaletako gazteei zuzenduta dago

<b>IGORREKO SAN ANTONIOAK</b> <b>NOIZ:</b> Ekainaren 6an eta 13an (Zapatue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Autobusen paradan	<b>BEDIAKO SAN JUANAK</b> <b>NOIZ:</b> Ekainaren 20an (Zapatue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Autobusen paradan	<b>ARANTZAZUKO SAN PEDROAK</b> <b>NOIZ:</b> Ekainaren 26an (Barikue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Autobusen paradan	
<b>DIMAKO SAN PEDROAK</b> <b>NOIZ:</b> Ekainaren 27an (Zapatue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Autobusen paradan	<b>AMOREBIETA-ETXANOKO KARMENAK</b> <b>NOIZ:</b> Uztailaren 18an eta 25ean (Zapatue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Anbulatorioko paradan	<b>LEMOAKO SAN INAZIOAK</b> <b>NOIZ:</b> Abuztuaren 1ean (Zapatue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Korreosen ondoan	
<b>ZEANURIKO ANDRA MARIAK</b> <b>NOIZ:</b> Abuztuaren 15ean (Zapatue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Autobusen paradan	<b>AREATZAKO SAN BARTOLOMEAK</b> <b>NOIZ:</b> Abuztuaren 28an (Barikue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Autobusen paradan	<b>ARTEAKO ANDRA MARIAK</b> <b>NOIZ:</b> Irailaren 11an (Barikue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Autobusen paradan	
			<b>GALDAKAOKO SANTAKURTZAK</b> <b>NOIZ:</b> Irailaren 12an eta 19an (Zapatue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Autobusen paradan
			<b>USANSOLOKO SAN ANDRESAK</b> <b>NOIZ:</b> azaroaren 28an (Zapatue) <b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan <b>NON:</b> Autobusen paradan



eta espazioak eregi. Ze harre-  
ra duina egon dan herrietan  
ez da tensionamenturik emon,  
zergaitik Lemoan bai? Ez da  
kasualidadea. Tensinoa hasten  
da persona horreek bazterretan  
ixten diran momentuan.

#### **Zergaitik emon da holan- go tensino momentua, ze irakurketa egiten dozue?**

Hau ez da bakarrik Lemoan edo  
Arratian pasau, momentu bate-  
ko tensionamentu erpina izan  
da; egunkariak zabalduetea bai-  
no ez dago ikusteko... Errazake-  
ria beti egon da, Arratian be bai,  
baina oin kriminalizazioa oso  
gogor dago kolektibo konkretu  
baten kontra. Bakarrik datozan  
adin txikikoak adibidez zelango  
harrerea jasoten dabe Euskal  
Herrian? Zentroetatik kalera,  
bakarrik, eta gainera kriminali-  
zazio guztia euren kontra. Ez  
dakit hori dan arazoaren foku  
bakarra, baina gazte magre-  
biarren inguruan berba egingo  
badogu esan behar da zelan  
pasetan dabizan gazte horreek  
eta zer gertatzen dan Euskal  
Herrira datozenean euren bizi-  
tza proiektuak. Ez da harro-  
tutekoa sistema honek eurekaz

egiten dauana. Guk ezetuten  
doguz kasuak eta oso proze-  
su gogorak pasetan ditue eta  
umeak dira. Hori aldatu behar  
da, harrera duina hortik hasten  
da.

#### **Gizarte moduan, arratiarrok zer daukagu harrera etxeen- gandik ikasteko?**

Ba begiradea aldatutea. Arteako  
esperientziak adibidez, lagundu  
dau herrian kontzientzia kolek-  
tibo bat eragitea. Batzungen  
gehiago eta beste batzungen  
gitxiago, baina danengan emon  
da aldaketa bat. Atzenean da  
konturatutea berrikusi egin  
behar doguzala hainbat eta  
hainbat jarrera, pentsamentu...  
Errazakeria danongan dagoala  
konturatutea eta hori berrikus-  
tea. Eta beste batetik, jakitea ez  
dagoala alkarbizitza posible-  
rik eskubideak bermatzen ez di-  
ran heinean. Bizikidetzeta ez da  
nik gura dodana egin eta inork  
ez molestetea, harago doan  
gauza bat da, kontu politikoa da.  
**Askotan egitan da berba “es-  
koi muturreko marka ideo-  
logikoakaz bat egiten daben  
ideen” gainean, baina zelan  
egiten jakie aurre?**

Hor gurata ipinten dogu fokua,  
uste dogulako hau ideologia  
konkretu baten estrategia bat  
dala. Barneratuteko oso diskur-  
so errazak botaten dabez. Mi-  
gratzaileak, pobreak... “horreek  
dakarre gatazkea” eta orduan ez  
dogu gorantza begiratuten. Ez  
dogu begiratuten ze egoeratan  
dagoan gure osasun sistema  
eta etxebizitzaren auzia. Ez  
dira begiratuten guri benetan  
eragiten deuskuen gauzak eta  
fokua ipinten da kanpokoek  
lana kentzean dabela, ostuten  
datozala... gezurra! Baina dis-  
kurso hori handitu eta indartu  
egin da, eta estrategia bat dago.

Harreteia ipini gura dogu  
adibidez, tabernan eta hurbi-  
leko jenteagaz, holango me-  
zuak erreproduziduten diran  
bakotxean izan behar gara  
gai esateko: “Zu kontuz, erre-  
produziduten zabizan mezu  
horreek ikasiak dira eta estra-  
tegia konkretu batetik datoz”.  
Hainbeste normalizatu dira guk  
be erantzuteko gaitasun gitxi  
euki dogula. Normalizetan itxi  
doguz, barneratu doguzane-  
ra arte. Guretzako, egin behar  
dana da mezu errazista eta



***Ez daukazu aukerarik eta okupe-  
tera derrigortuta zagoz. Gero hori  
kriminalizetan da eta tensiona-  
mentu egoera larriak ekarten dauz***

***Barneratuteko oso diskurso errazak  
botaten dabez. Migratzaileak, po-  
break “horreek dakarre gatazkea” eta  
orduan ez dogu gorantza begiratuten***



xenofobo horreek identifikau  
eta aurre egin. Esan behar jako  
inguruko jenteari, “konturatu-  
ten zara zer zabizan esaten eta  
noren mesedetan esaten zabi-  
zan?”. Alkartasun eta klase kon-  
tzientzia hori itxartu behar dogu  
barriro, pentsau behar da me-  
sedeia nori eta kalte nori egiten  
zabizan. Ze benetan uste dogu  
mezu horreek erreproduziduten  
dabeanetik asko ez dirala  
eskoieko ideologia bategaz  
identifiketan; hori ikusarazo be-  
har dogu, gugandik hasita gure  
ingurura.

#### **Ze esan lei Arratian ez da- goala eskoi muturrik, sikan antolatuta.**

Ez dago baina Lemoan emon  
ziran eraso fisiko eta personalak  
migrauen kontra, eta lgorren  
be bai. Ziur persona horreekaz  
berba egin ezker ez dirala  
kokatuko eskoi muturragaz,  
ez ideologikoki ez bozkaten,  
baina indarra erabilten zabiz  
persona migrau batzuk joteko.  
Eta oindino ez dira konturatu  
igual eskoi muturraren erremin-  
ta bat izan dirala. Ez dago eskoi  
mutur antolatu bat, baina jentea  
antolatuten da persona errazia-  
lizauak erasotuteko. Ba kontuz.

Eta antolatuta egon ez arren,  
diskursoak eskoieratuten doaz.  
Guk taldean komentetan dogu,  
horreri aurre egiteko, praktikan  
gauza bi egongo zirala. Alde  
batetik irabazita daukagu-  
zan eskubideak defendidutea  
-hezkontzea, osasungintza pu-  
blikoa, pensinoak...-, eta bestetik  
prekarizazio egoera muturre-  
koenetan bizi diranak, galtzeako  
ezer ez dabenak, egiten dabean  
burruketan -Agarren adibidez-  
egon behar garala. Gauza bi ho-  
rreek bistatik galtzean badoguz  
ba gero eta eskoirago goaz. Hori  
feminismoak atzenaldian asko  
landu dauan gai bat da, preka-

rizazioa dala sistema honen  
dominazio eredu eta horren  
inguruko hausnarketak.

#### **Uste dozue Arratia alkarbi- zitza eta kulturartekotasun eredu bat izateko prest egon ahal dala?**

Behar dira eskubideak, bestela  
ez da izango ez Arratia ez Eus-  
kal Herria. Persona guztien-  
tzako beharizan eta eskubide  
bardinak daukaguzala benetan  
ulertu behar da, bai instituzi-  
noen aldetik bai gure egune-  
roko harremanetan. Hor sortuko  
da. Prest gagozan? Momentu  
honetan ez, baina espero dogu  
baietz, lortzea.

Hau danau umiltasunetik  
da, talde honetan argi dauka-  
gu danok egin behar doguzan  
berrikusketak dirala. Ez daitela  
ulertu hemen batzuk egin dogula  
ibilbide bat eta beste batzuk ez  
dabela egin. Guk be egin behar  
dogu, etenbako berrikusketea  
dala mahaigaineratu gura dogu.

Errazakeriak danori zeharka-  
tzen gaitu, zurtasunak, sare  
sortu genduan espero gendu-  
an, edo saiatu ginan, errazia-  
lizauak be sarearen parte izatea.  
Eurak dira-ta subjektu zapal-  
duak eta ulertuten genduan  
eurena zala espazioa. Baina  
errealidadea da herri mobimen-  
tuan persona zuriok hartzean  
dogula parte hein handi baten  
eta ez genduan lortu bestek be  
parte hartzea. Egia da Agarreko  
personek parte hartu dabela  
baina biziraute egoera batetik  
eta sarearen parte aktiboa iza-  
tea ez da euren errealidadea.  
Horregaitik gu ezin gara izan  
mobimentu antierrazistean  
eragile bat, ez garalako errazia-  
lizauak eta gure zurtasunetik  
gabizalako. Horregaitik, sare  
ez da Sare Antiarrazista izango,  
baizik eta Eskubideak Danon-  
tzat Plataforma.



## FUTBOLA

**Amaitu dabe ligea gizonetzkoen taldeek**

Arratia Bk jokoan eukan ez bajatutea eta atzen partidua 5-1 irabazi eban, Lemoako Harrobik, ligako atzenurren astean igoera lortuta, ez eban ezer jokoan eta galdu egin eban eta Arratia Ak be galdu egin eban.

**Erredakzioa**

Lemoako Harrobik maiatzaren 16an Lehentasunezko mailara igotea lortu eban eta 23an Arlonagusian Lekeitio Aren kontra jokatutako partiduan ez eukan ezer jokoan. Etxekoek 3-4 galdu eban. Lemoako Harrobik bigarren postuan amaitu dau 72 puntugaz. Partidu ostean etorri

zan lemoaztarren ospakizuna eta nagusien taldeko jokalariek eta kadeteek igoerak ospatu ebezan herrian zehar kamioi baten gainean. "Nagusien taldeko jokalariek (gorriz) eta Kadete A-ko jokalariek (zuriz) -talde biak Lehentasunezko mailara igon dira- kamioi gainera igon ziran (gure babesle dan Erreka Iru-n kamioia) eta Lemoatik

kalejireia egin genduan. Harrobi eta herria. Udaletxera arte. Han alkateak harrera egin eutsen eta aureskua, zuzendaritzako kide dan Julen Bilbaok. Gero balkoira igon ziran ekipo biak eta jentea eskertu eban astegienero emondako babesagaitik. Ordu bi iraun ebazan jaiak. 21:00etan Arlonagusian hasi eta 23:00etan udaletxean amaituta"

adierazo eutsan BEGITURI Alazne Salcedo Lemoako Harrobiren presidentek.

**Arratia**

Arratia B taldeak, maiatzaren 23an Urbietan Indartsu taldearen kontra jokatutako atzen partiduan jokoan eukan jatsierea, goragoko mailetatik bajatuten diran taldeak baldintzatuten dabelako zenbat talde jaisten diran. Ligako atzen partidua 5-1

irabazita hamazortzi taldetatik hamabosgarren postuan amaitu dau 32 puntu lortuta; atzen biek maila galdu dabe. Arratiako zuendaritza batzordetik BEGITURI adierazotakoaren arabera maila mantenduten dau B taldeak. Partidu honetan Ohorezko Nazionalera igon daben jubeniil mailako jokalariek batzuk jokatu eban, euren artean pitxitxia izan dan Oroitz Villena, eta hiru gol sartu ebazan. Jokalaria Eibar taldeak fitxau dau.

Arratia A taldeak maiatzaren 23an jokatutako Atxulaur A taldearen kontra eta 1-0 galdu eban. Arratiak seigarren postuan amaitu dau 51 puntu lortuta. Ligako lehenengo jardunaldi batzuk kenduta, Arratia A 23. jardunaldira arte egon zan igoera postuetan, baina hortik aurrera hirugarren postua galdu eta atzenean seigarren amaitu dau.

**TALLERES ELEZARRE**

Lehendakari Agirre, 22 · 94 631 56 34 · IGORRE  
elezarre@telefonica.net

**Andrazkoen Arratia B**

Arratia eta Lemoako Harrobiko nagusien talde guztiek amaitu dabe ligea andrazkoen Arratia B taldeak izan ezik. Honek datorren astegieneroan hasiko dira Euskal Ligara igoteko promozinoa jokatuten, lehenengo Arabako Alegriaren kontra etxetik kanpo eta gero etxean Gipuzkoako Intxaurdi taldearen kontra. Alegria taldearen kontrako partidua bagilaren 7an, 17:00etan jokatuko dabe.

Bestalde Arratia hasita dago datorren denporaldira begira lanean eta oin arte andrazkoen taldeen koordinatzailea izan dan Jon Gallegok ez dauala klubean segiduko publikau eban sare sozialetan Arratiak. "Bihotzez eskertu gura deusagu urte guzti honeetan egindako lana, erakutsitako konpromisoa eta dedikazioa. Suerterik onena etorkizunerrako" inoan mezuak. Jon Gonzalez "Peli", oin arte andrazkoen Arratia Ako entrenatzaile izandakoak, andrazkoen nagusien taldeen koordinazioa hartuko dauala adierazo eban baita mezu berean.

MENDIA

## Larraitz Aragon eta Iñigo Guereta nagusitu dira Ubidestroï Trail-en

Lasterketa laburra Aimar Larrea eta Ane Mendizabalek irabazi dabe.



Larraitz Aragon helmugan.

Argazkia: Alberto Benito.

lasterketa izan zan proba nagusia, Gorbeiaiko kurutzera heltzean zana, eta irabazleak Larraitz Aragon (03:20:11) durangarra eta Iñigo Guereta (02:36:38) gaisteztarra izan ziran. Andrazkoen podiuma Oihana Azkorbebeitia eta Zutoia Odriozolak osotu eben eta gizonezkoena Hassan Ait Chaou eta Iñaki Olanok.

Lasterketa laburragoa be egon zan jokoan, 22,5 kilometro eta 1.000 metroko desnibealekoa. Bertan Aimar Larrea (01:53:46) eta Ane Mendizabal (02:26:54) izan ziran bizkorrenak eta txapela jantzi ebenak. Andrazkoen podima Arene Isusi eta Oihane Alonsok osotu eben. Gizonezkoetan barriz, Larreagaz batera Alexander Ordeñana eta Eneko Moreno igon ziran podiumera.

Ubidestroï Trail mendi lasterketako argazki guztiak ikusgai dagoz [albertobenito.eu](http://albertobenito.eu) webgunean.

patxanga helbidean emon behar da hilaren 6ra arte.

14:30ean herri bazkaria izango da. Menuan oilasko paella eta natillak egongo dira, eta bazkaria Merhezi taldeak girotuko dau. Bazkarirako txartelak 2 eurokoak dira eta aurretik izena emon behar da <https://labur.eus/Lemoabazkaria> helbidean hilaren 3ra arte. Ordainketea eguaztenean eta eguenean (hilak 3 eta 4) 18:00etatik 20:00etara futbol zelaian egin behar da.

Antolatzaileek jakinarazo dabenez, goiz osoan zehar jolasak eta bestelako sorpresak be egongo dira parte-hartzaileentzat.

### Asier Abrisketa

Maiatzaren 30ean jokatu zan Ubideko mendi lasterketa

bikotzeko Ubidestroï Trail mendi jardunaldiaren bosgarren edizinoan. 28 kilometro eta 1.800 metro desnibealeko

FUTBOLA

## Harrobi Egunaren hirugarren edizinoan egingo dabe bagilaren 6an

### Erredakzinoa

Lemoako Harrobi Futbol Klubak III. Harrobi Eguna antolatu dau hilaren 6rako. Arlonagusian egingo dabe jardunaldia, eta kirola, bazkaria eta giro ona buztartuko dituan egitaraua prestatu dabe.

Goizeko 09:30etik 13:30era futbol eskolako taldeak eta senideak izango dira protagonistak, alkarren aurka jokatuko dituen partiduetan. Ostean, 13:30etik 14:30era, 16 urtetik gorakoentzako patxanga partida egingo dabe. Parte-hartzeako izena <https://labur.eus/>

OCR

## Europako OCR txapelduna da Itxaso Arandia

### Asier Abrisketa

Itxaso Arandia igorretarrak maiatzeko atzen astegoienean Irunen jokoan egon dan oztopo lasterketen OCR Europako Txapelketan parte hartu dau. 25 eta 29 urte bitarteko mailan aritu da eta hirugarren postua eskuratuteko ametsagaz heldu bazan be, atzenean txapeldun moduan bueltau da Igorrera. Holan, denporaldirako izan dauan helburu nagusia bete bakarrik ez, "espero barik" gain-

ditu be egin dau: "Ezin sinistu eta sano pozik nago lortutakoagaz".

Igorren Bizkaia mailan abangoardian dagoan OCR taldea dago, izan be Guramen Kirol eta Osasun Zentroa da entrenetako zabaldu zan lehen zentroa, eta handiena dana. Holan, bertatik taldetxoa egiten dabe OCR probetara joateko. Arratiatik, Europako Txapelketan Asier Nuñez zeanuriztarra eta Andoni Beldarrain arteaztarra egon dira, Arandiagaz batera.



BOLA-JOKOA

## Obak irabazi dau Arratiako Kormarkala Bola Txapelketea

### Erredakzinoa

Maiatzaren 30ean jokatu zan Artaunen Arratiako Komarkaleko Bola Txapelketako seigarren eta atzen jardunaldia eta aurreko aste bietan lez Obak irabazi eban. Tiraldiaren ostean tiralariak San Kristobaleko txokoa bazkaldu eben.

Obak 671 puntu lortu ebazan; Zeanurik 667; hirugarren Lemoa sailkatu zan 476 puntugaz; laugarren, Elorriaga 623gaz eta bosgarren postuan bardinduta Bargondia eta San Kristobal

567 puntugaz.

Atzen sailkapena hauxe izan da: 1. Oba 3.472, 2. Zeanuri 3.343, 3. Lemoa 3.288, 4. Elorriaga 3.217, 5. Bargondia 3.162 eta 6. San Kristobal 3.001.



Arabiako Harrobi lasterketarako

# Gure

ikastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI  
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI  
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



## ● IPUINAK

## Amaia Egidazuk umeentzako ipuinak kontauko ditu Bedian

*Liburu-maleta ibiltaria* ekimenaren saioa hilaren 12an izango da, 17:30ean.

### Asier Abrisketa

Bediako Udalaren ekimenez, 2024an ipini zan martxan txikirenen artean irakurzaletasuna bultzatutako *Liburu-maleta ibiltaria* ekimena. Hasieran Onditz Mendizabal kontalaria zan dinamizatzailea baina Amaia Egidazuk badaroa ia urte eta erdi Bediako umetxoakaz lanean eta ondo ezetuten ditu euren gustuak. Holan, noizean behin

ipuinak aukeratu eta umetxoakaz konpartiduten ditu.

Hurrengo saioa oingo bagilaren 12an izango da, 17:30etik 18:30era, betiko lez ludotekan. "Liburu artean, ipuinetan murgilduta, Amaia Egidazugaz istorioak entzungo doguz. Emozinoz eta irudimenez, material desbardinak eskuartearen, sorkuntza lana egiteko unea izango dogu ipuinetako pertsonaiak lantzean", dino tailerren azalpenak.



## ● ZIRKUA

## Izarren Hautsa zirku taldeak ikuskizun bi prestatu ditu bagilerako

### Asier Abrisketa

Urtero lez, Igorreko zirku eskolako ikasleek osotuten daben Izarren Hautsa taldeak ikuskizuna prestatu dau ikasturte amaierarako. Saio bi egingo dira, lehenengoa bagilaren 11n, Igorreko jaietako egitarauaren barruan, 18:30ean Lasarte Aretoan. Bigarrena barriz bagilaren 18an egingo da, hau be 18:30ean Lasarte Aretoan.

Lehenengo ikuskizuna, *Ametsetan amets*, Laborategiko taldeak egingo dau; maila altuko 10 eta 25 urte bitarteko dozena bat ikasleek eta ametsak egi bihurtuteko gogoen gaineko emonaldia izango da. Bigarrena barriz, *3,2,1... Aurrera!* film famauen abestietan oinarritutako ikuskizuna izango da eta protagonistak, 5 urtetik 18 urtera arteko 30 bat ikasle izango dira.



## ● MUSIKEA

## Suger taldeak lehen diskoa grabetako diru-bilketa kanpaina abiatu dau

*itsulapikoa.eus* webgunean erosi daiteke taldearen merchandisinga, *Anots* diskoa grabetan lagunduteko.

### Asier Abrisketa

Erroak Diman daukazan Suger taldeak bere lehen estudioko lan luzea grabatu gura dau, *Anots* izenpean eta hau finantzietako, diru-bilketa kanpaina ipini dau martxan, "edozeinek proiektua babestu gura izatekotan, bere aletxo ipinteko aukerea izan dagian". Horretarako, taldearen merchandisinga ipini dabe salgai *itsulapikoa.eus* webgunean. Lortu gura daben diru kopuru minimoa 2.500 eurokoa da eta ezin hobea 5.000 eurokoa.

*itsulapikoa.eus* webgunean sartu eta proiektuen atalean Suger taldearena aukeratu, egin daitezke ekarpen desbardinak. Holan, kamisetak, izerditakoak, etorkizuneko diskoa eta material konbinazio desbardinak erosi daitezke, egin gura dan ekarpenaren arabera. Badago norberak aukeratu ahal

dauan ekarpen zehatza egiteko aukerea eta "Suger experience"-a be, bazkari eta guzti taldekideakaz pasetako egun bat.



## ● BERTSOLARITZEA

## Iradi Barrenetxeak irabazi dau Bizkaiko Eskolartekoa

Arteztarrak eroan dau txapel nagusia, eta Aiotz Loiola dimoztarrak DBH1eko idatzizkoa.

### Asier Abrisketa

Maiatzaren 20an Aulestin jokatu zan aurtengo Bizkaiko Eskolarteko Txapelketako finala eta irabazlea, Arteako Iradi Barrenetxea izan da. Holan, Barrenetxeak zein finaleko buruz burukora heldu zan Jon Abasolo munitibartarrak bagilaren 13an Arantzan jokatu dan Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketako finalerako txartela lortu dabe. Barrenetxea fin dabil atzenaldian, izan be, maiatzaren 16an Gazte txetxeak Bertsotan sariketako finalean be egon zan.

Bat-bateko txapelketan jokatu diran lau kanporaketetan 39 bertsolari gaztek hartu dabe parte

eta puntu gehien pilatu dabezan zortzi bertsolariak egon ziran finalean: Amaiur Betanzos, Eider Fernandez, Helene Yerga, Izaro Pagalday, Jon Abasolo, Maddi Aurtenetxe, Naroa Iturrioz eta Iradi Barrenetxea bera. Zortziko handian eta txikian ofiziotan egin ostean, arteztarrak eta Abasolok jokatu eben buruz burukoa eta hau irabazita suertau zan garaile Barrenetxea, Xabat Galletebeitia bertsolariak ipini eutsan txapela buruan.

Ez zan eguneko irabazle bakarria izan. Izan be, idatzizko txapelketea be egon zan jokoan eta DBH1eko kategorian, Aiotz Loiola dimoztarrak izan zan garailea eta Lemoako Alaitz Lekunberri hirugarrena.



## ● BERTSO-SAIOA

## Esne berriketan bertso-saio literarioa egingo da Diman

Uxue Alberdik, Amorantek, Oihana Aranak eta Miren Amurizak hartuko dabe parte emonaldian.

### Asier Abrisketa

Bagilaren 5ean, barikua, Uxue Alberdik bere *Esne berriketan* libururaren aurkezpen sano originala egingo dau Dimako Piedadeko ermitan, 19:00etatik aurrera. Izan be, liburua aurkeztutako, literatura, musika eta bertsoak buztartuten dauzan saioa izango da. Uxue Alberdik liburuaren zati batzuk errezitatu, Iban Urizar Amorantek musika ipini eta Arana zein Amurizak bat-bateko bertsoak kontauko dabez.

*Esne berriketan* libururako, Uxue Alberdik herriz herri ibili zan urte biz istorioak batzean. Andrazkoei buruzko istorioak jaso eban, nagusiki andre kontautako ahozko istorioak dokumentau eta idatzita ixteko.

● ANTZERKIA

## Bederatzigarrenez egingo dira Arratiako Haur Antzerki Topaketak Igorren

Bagilaren 3an, 4an eta 8an egongo dira ikusgai eskolaumeen antzezlanak.



### Asier Abrisketa

Beste urte batez, Areatza, Artea, Igorre eta Lemoako eskoletako ikasleek ikasturtean zehar prestatutako antzezlanak jentearrean taularatuko ditue, Arratiako Haur Antzerki Topaketetan. Aurrekoetan moduan, bederatzigarren edizino honetan Kurkuluxetan

Kultur Elkarteko antzerki eskolako kideen laguntzea izan dabe antzezlan originalak sortu, entseguak egin eta taularatutako.

Saioak bagilaren 3an, 4an eta 8an egingo dira Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan, 17:30etik aurrera. Lehenengo egunean, Arteako ikasleen *Inazio erregea* eta Lemoakoen

*Auzokideak* antzezlanak egingo dira ikusgai; hurrengo egunean Igorreko eskolaumeen *Harri zopa*, Areatzakoen *Piraten akademia* eta Lemoakoen *Zelako gaztelua*. Bagilaren 8an barriz, Igorreko umeek *Txinako harresia*, Arteakoen *Herri galdua* eta Lemoakoen *Koadro beltzaren lapurreta* taularatuko dabez.

● MUSIKEA

## Euskerazko rap feministea Kotxepin Kultur Etxean

La Basuk kontzertua eskainiko dau Lemoan bagilaren 5ean, 20:00etan.

### Asier Abrisketa

Elena Caballero Villanueba "La Basu" lehenengo andrazko euskal rap-abelaria izan zan 1990eko hamarkadan eta oindino be, oholtzera igoten jarraituten dau. Etxebarrikoa hilaren 5ean egongo da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera, "indarrez jositako letrak" dituan *Emakume gerlariak* zuzenekoagaz. Etxebarrikoak euskeraz

zein gaztelera kantauko dau.

Etxebarriko rap-abelaria karre handia daroa atzean. 1999an andrazkoek osotutako Jungla Urbana lehen euskal rap taldea osotu eban eta taldeagaz zein bakarka, zazpi disko argitaratu ditu. Atzena, *Lurralde Komantxe*, 2024an argitaratu eban eta bertoko kantak izango dira Lemoan entzun ahal izango diran asko. Rap musikea, reggae eta dancehall moduko estilo jantzarriakaz buztartuten dau.



DUNBA

## Lemoako 6. mailako ikasleen film laburra Euskadiko irabazle

### J.B. Eguzkitza Meabe eskolako LH6ko ikasleak

Lemoako J.B. Eguzkitza Meabe eskolako 6. mailako ikasleak estatu mailako Eskolen arteko Film Laburren Lehiaketan finalaurrekoetara heldu gara.

Estadu mailan Platino Educa hezkuntza plataformak antolatzen dauan lehiaketa bat da. Gabon aurretik hasi ginan film laburra egiten. Euskadiko onenak izan gara eta finalaurrekora heldu gara.

Egun baten Iraia irakasleari email bat heldu jakon film laburren lehiaketan parte hartzeako. Guri ondo iruditu jakun eta izena emon genduan.

Idea pentsetako talde txikietan banatu ginan eta talde bakotzak

proposamen bat egin eban, gero zozketea egin genduan. Idea pentsautu, gure tutoreen laguntzeagaz gidoia egiten hasi ginan, idea ona iruditu jakunez castingak egiten hasi ginan, pertsonaiak aukeratzeko. Gure tutoreek eta beste irakasle batzuk pertsonaiak aukeratu ebezan, eta aukeratuak izan ez ziranak estrak eta laguntzaileak izan ziran. Grabaketak eskolako patioan eta pasabideetan egin genduzan. Iraiak filma montau eta bertan derrigorrezko azpitoluak ipini ebezan, eta Platino Educa izeneko plataforma batera bialdu genduan.

Platino Educa eskola eta unibersidadeentzako egindako plataforma bat da, kultura eta hezkuntza jakintzak teknologiaren bitartez zabaltzeko. Laburmetraia



euskeraz egiteko aukerea egoan, eta holan egin genduan; baina azpitoluak gaztelaniaz idatzi behar genduzan, parte hartzeako baldintza bat zalako. Gaia librea zan eta guk pobrezia eta *bullyingari* buruz egitea aukeratu genduan. Errespetau behar genduan beste erispideetako bat iraupena zan, gehienez 5 minutukoa, kredituak barne, eta guk 4 minutukoa egin genduan.

Gure lehenengo aldia izan da film labur bat egiten, ondo pasau dogu, barreak egin doguz eta oso esperientzia ona izan da.

Eskertu nahi deutsegu gure tutoreei eta irakasleei, eskaintako denpora eta laguntzeagaitik.

## ● AGENDEA

### BAGILAK 2 ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

#### AREATZA

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Arratiako Ondare Astegoienean (bagilak 27 eta 28), Aikoren jantza ikastaroetarako izen-emotea [aiko.eus](http://aiko.eus) webgunean.

#### ARTEA

Jaietako Kartel Lehiaketea. 16 urtetik gorako herritarrentzat. Kartelak "Arteko jaiak 2026" jaso behar dau eta DIN A4 (digitalean zein fisikoan) aurkeztu behar da. Teknika librea. Udaletxean aurkezteko atzen eguna: bagilak 3. Irabazlea aukeratzeko bagilaren 19an, 17:00-20:00, plazan botoa emotea.

#### BEDIA

16:30etik 19:30era, informazio gunea eta liburutegia astelehenetik barikura zabalik.

17:00etatik 18:00etara, jubiladuen alkarteak antolatutako Quintanilla del Aguako urtekerara joateko sarreren salmentea. Eskoletan.

18:00etan, *Sexualitatea eta afektibitatea zahartzaroan: mitoak hausten eta ongizatea sustatzen* berbaldua. Eskoletan.

Bagilaren 12ra arte, sanjuanetako playback-ean eta txosnan laguntzaile moduan izena emoteko epea zabalik. Informazio gunean 16:30etik 19:30era.

#### DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik egunera liburutegia zabalik.

#### IGORRE

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik egunera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Bagilaren 10era arte, Arratia futbol taldearen Udako Futbol Kanpusean (bagilak 22-26, 09:30etik 14:00etara) izena emoteko aukerea. Prezioa 100 euro, armozuak eta kamisetak barne. Izen-emotea <https://labur.eus/arratiafutbola> galdetegian.

17:00etan, Kiñu Gaztetxearen jaietarako txosnearen muntaketea.

18:00etan, Berbalagun taldeak antolatutako ukenduak egiteko tailerra. Kubulu euskaltegian.

#### LEMOA

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Bagilaren 6ko III. Harrobi Egunerako izen-emoteak. Hilaren 3ra arte bazkarirako izen-emotea <https://labur.eus/Lemoabazkaria> helbidean eta hilaren 6ra arte <https://labur.eus/patxanga> helbidean patxangarako.

#### UBIDE

08:00etatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

#### ZEANURI

Batxilera eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHkoentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik

19:00etara.

Jaietako Frontenis Txapelketan izen-emotea bagilaren 5era arte 688 860 851 zenbakian WhatsApp bidez. Ume eta gaztetxoak.

Helduen Jaietako Frontenis Txapelketan izen-emotea garagarriaren 15era arte 696 631 491 zenbakian WhatsApp bidez.

#### ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik, martitzen eta egunetan liburutegia zabalik.

### BAGILAK 3 ARTEA

19:00etan, *Ekologia pirata baten alde, eta aske izango gara* liburuaren aurkezpena, Leire Mendiburu eta Erika Lagomaz. Herriko Bentan.



#### BEDIA

17:15ean, Txiki-txokoren gaineko batzarra. Eskoletan.

18:15ean, udalekuen gaineko batzarra. Eskoletan.

#### IGORRE

IX. Arratiako Haur Antzerki Topaketak. 17:30ean, Arteko ikasleen *Inazio erregea* eta Lemoako ikasleen *Auzokideak*



## Magia ikuskizun familiarra Kotxepin Kultur Etxean

Bagilaren 13an, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean bost urtetik gorako ume eta familientzako magia ikuskizuna egingo dau Asier Kidam magoak. *Aroa eta mirariak* izenpeko emonaldia "esperimentu benetan magikoa" da Kidamen esanetan eta bertan, bere atzen sormen lanak erakusten dauz, umore dosi handi eta soinu-banda zaindu batez lagunduta. Holan, publikoak "mirari txikiak" bizitzeko aukerea izango dau: podere handiak dituan uztai bat, ardi jostalariak eta magia egiten dauan pelutxea...

antzezlanak. Lasarte Aretoan.

### BAGILAK 4 AREATZA

09:00etan, Uparan jubiladuen alkarteak antolatuta, txangoa Bermeo eta Madariaga Dorrera. Izen-emotea aurretik egin behar izan da.



Berbalagunen VII. Tortilla Txapelketa. 17:30ean, izen-emotea eta 19:00etan, tortillen aurkezpena arkupeetan.

#### IGORRE

Jaietako bezperaa. 12:00etan, kalejireia Eingogaz Gau Loratik hasita; 18:15ean, kalejireia Eingogaz Olabari eta Lehendakari Agirretik; erromeria Eingogaz, Bidebarrin.

IX. Arratiako Haur Antzerki Topaketak. 17:30ean, Igorreko ikasleen *Harri zopa*, Areatzako ikasleen *Piraten akademia* eta Lemoako ikasleen *Zelako gaztelua* antzezlanak. Lasarte Aretoan.

### BAGILAK 5 ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa. Josu Goikoetxearen *Lakioa* liburuaren lanketea idazleagaz eta Alaine Agirregaz. Kultur Etxean.

#### DIMA

Heldu kulturari. 19:00etan, *Esne berritan*

bertso-saio literarioa Uxue Alberdi, Amorante, Oihana Arana eta Miren Amurizagaz. Piedadeko ermitan.

#### IGORRE

Igorreko jaiak, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

#### LEMOA

17:00etan, Kurtso Amaierako Festa; eskolaz kanpoko ekintzen erakustaldia eta *Garbijai* ikuskizuna.

Pelotea ezetuteko ate irekiak, 16:45etik 17:45era. Frontoian. 2021. urtetik aurrera jaiotakoentzat Lemoako Eskupilota Taldearen eskutik.

20:00etan, La Basuren kontzertua. Kotxepin Kultur Etxean.

### BAGILAK 6 DIMA

10:00etan, Herribasoetako Baso Planaren gaineko azalpen ibilaldia (10 km) Errotuz enpresearen eskutik. Zumeltzako merenderotik.

#### IGORRE

Igorreko jaiak, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

#### LEMOA

III. Harrobi Eguna. 09:30etik 13:30era futbol eskolako taldeak eta senideak alkarren kontra partidua; 13:30etik 14:30era, 16 urtetik gorakoentzako patxanga partidua eta 14:30ean, herri bazkaria. Goizean zehar jolasak eta bestelako sorpresak be egongo dira.

#### ZEANURI

Caritas Bizkaiaren Karitatearen egunaren ospakizuna. IV. Bikaritzak antolatuta. 10:00etatik 10:30era, harrerea eta amozua parrokiaren eta ostan mezea. Gero plazara trikitilakaz. Plazan erakustaldiak egongo dira: herri kirolak... Taloa eta txistorra; 14:15ean, frontoian bazkaria. Musikeagaz amaitu.

### BAGILAK 7 IGORRE

Igorreko jaiak, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

### BAGILAK 8 IGORRE

Igorreko jaiak. Umeen eta soinu bako eguna barraketan, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

IX. Arratiako Haur Antzerki Topaketak. 17:30ean, Igorreko ikasleen *Txinako harresia*, Arteko ikasleen *Herri galdua* eta Lemoako ikasleen *Koadro beltzaren lapurreta* antzezlanak. Lasarte Aretoan.



### BAGILAK 9 IGORRE

Igorreko jaiak. Baserritarrez jantzeko eguna, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

### BAGILAK 10 BEDIA

17:00etatik 19:00etara, *Milaka aukera* LGBTIQ+ fobiaren kontrako ekimena, auzolanean banku bat margoztu.

#### IGORRE

Igorreko jaiak. Umeen eta soinu bako eguna barraketan, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

### BAGILAK 11 AREATZA

19:00etan, Areatzako Emakume Abertzale Batza martxan ipinteko batzar irekia. Batzokian.

#### IGORRE

Igorreko jaiak. Mozorro eguna. Gaia: Joko Olinpikoak, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

### BAGILAK 12 BEDIA

Jubiladuen alkarteak antolatutako urtekera, Quintanilla del Aguara.

17:30ean, Amaia Egidazu ipuin kontalariaren *Liburu-maleta ibiltaria*. Ludotekan.

#### IGORRE

Igorreko jaiak, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

#### ZEBERIO

Ermitabarriko jaiak. 17:30ean, txupinazoa; jarraian, pelota partidua; 21:00etan, sardina-jana; 21:30ean, Perejilek folklore taldea.

### BAGILAK 13 IGORRE

Igorreko jaiak. San Antonio eguna, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

#### ZEBERIO

Ermitabarriko jaiak. 12:00etan, puzgarriak eta umeentzako tailerrak; 13:00etan, mezea ermitan; 13:30ean, barauskarria eta Auspokaleko trikitilariak; 15:00etan, auzo bazkaria; 18:00etan, txapel jaurtiketea eta Igel Txapelketea; 18:30ean, bola-jokoa; 19:30ean, merienda; 20:30ean, DJ Alex eta animazioa Lainegaz; 22:30ean, Kaiña-Bi Trikitifarra; 01:00etan, txokolata.

### BAGILAK 14 BEDIA

11:00etatik 14:30era, Merkataritza, Artisanatza eta Elikadura Azokoa. Plazan.

#### IGORRE

Igorreko jaiak, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

#### ZEBERIO


Ermitabarriko jaiak. 12:00etan, helduen pato lasterketea; 12:15ean, umeen pato lasterketea; 13:00etan, Harriti giza proba taldearen erakustaldia eta desafioa; 13:30ean, Gazte Barri eta Gangorri taldeen jantzialdia; 17:30ean, Mus Txapelketea.

### BAGILAK 15 IGORRE

18:00etan eta 19:30ean, Arratiako Musika Eskolako orkestra eta bakarlariak (Lasarte Aretoan) eta konboak (parkean).

# KOMIKIA

Gepeto



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### ALOKATZEKO ETXE BILA

Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakak bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

#### GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

#### TABERNARI EUSKALDUNEN BILA

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienerako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

#### BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Exploratzailaren marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo

ikusteko deitu: 670 825 753.

#### LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA

60 urtetik gorako lesbiana eta lesbianagai bila. Edadeko andrea zara eta aisialdirako edota militantziarako espazio ez-hetero baten bila zabiz? Deitu edo bialdu mezua: 608 062 592.

#### GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN

Kotxeak sartzeako garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

#### BEDARRA EBAGITEKO MAKINEA SALGAI

Stihl RMA 339 makinea. Bateriaduna da, ez gasolina ezta elektrikoa. 5 urte ditu. Prezioa adostu daiteke. Telefonoa: 661 273 192.

#### ANTXUME EDO AUMAK SALGAI

Antxume edo aumak salgai, bizitarako edo okelatarako. Deitu: 667 939 370.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

**1** Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera La Basuren kontzerturako.

Yazmina Beobide (Areatza)  
Ibon Ozerin (Igorre)



**2** Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Aroa eta mirariak magia ikuskizunerako.

Jon Mendiolagoitia (Igorre)  
Iratxe Olibares (Abadiño)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. **BEGITUK 24** urte eta ehundaka lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**Dia %**  
**PEDRO AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
-  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
-  
TEL. 94 631 92 00

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3 - 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-40-54

**GORBEIALDE**  
LANDA GARAPENA  
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

**BEGITU**

**Kili~Kili**  
Antzoa eta Puertoburu  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 473 43 81

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**  
-Bilatu dezu jabetza- Bilatu dezu proiektu-  
-Salmentan zein aldatzean-  
Lurrik (makitak, landak, basoak...)  
Etebizitza (pisuak, baserriak, etxeak...)  
Garajeak  
Laneri komertzialak  
Publizitateak  
-Balonazkoak-  
Irakin berriak erakitzeko  
Inerzioak  
AKTibitate-proiektuak  
-Izane diseinua  
-CEE eta ITE-ak  
-Hirigintza aholkularitza  
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

**arratia**  
INMOBILIARIA

Lanaburu Agirre 10, 48140 Igorre - Bizkaia  
Telefonoa: 94 631 81 81 - Faxa: 94 631 81 81  
24/7 94 631 81 81 - 94 631 81 81  
www.arratia.com

**Olaetxe**  
OPTIKA ENTZUKA

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentilen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

**ASESORIA GORBEIALDE**  
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



**94 631 72 57**



**ekin@ekinsl.eus**



**Igorre (Bizkaia)**